

# Abiatzeko prest



## ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea




## KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
  - Eusko Jaurlaritza
  - Udala



## LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enklavazioaren erreklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza





# PEUGEOT 208 BERRIA

## UNBORING THE FUTURE



**125** €/HILEAN

47 KUOTA • SARRERA: 1.357 €

TAE: %6,43 • AZKEN KUOTA: 7.112,44 €

**MOTION & e-MOTION**

ZATOZ PROBATZERA EIBARKO  
**PEUGEOT ETORMOBIL** KONTZESIONARIORA

**BERGARA**

Olabarrena auzoa, z/g  
20570 Bergara  
Tel.: 943 10 17 17

**EIBAR**

Otaola Etorb., 22  
20600 Eibar  
Tel.: 943 20 09 66

**ZIORLA AUTOAK**

Santa Maña, 19  
48215 Iurreta-Durango  
Tel.: 946 21 71 30



**PEUGEOT**

**ETORMOBIL**

[www.etormobil.com](http://www.etormobil.com)

Peugeot 208 berria. WLTP balioak: erregai-kontsumo minimoa eta maximoa (l/100km): 4,2 - 5,9 ziklo konbinatuan. Ziklo konbinatuko CO2-aren gutxieneko eta gehieneko emisioak (g/km): 134. NEDC balioak: CO2-emisioak (g/km) 85 eta 103 artean. Informazio gehiago, Peugeot-en web orriko WLTP atalean (<https://wltpeugeot.es>).

\*Penintsulako eta Balearretako PRPren arabera, 12.100,46 € N208 5P Active Puretech 75 S&S 5 Vel MAN (zergak, deskontuak, bezeroak bere jabetzako ibilgailu erabili bat entregatzea, gutxienez hiru hilabeteko antzinatasunarekin). Kontratuaren iraupena: 48 hilabete eta 40.000 km guztira. Irekiera-gastuekin (424,37 €) finantzatutako kapitala: 11.167,83 €. TIN:% 4,95. TAE: %6,43. Zor den zenbateko osoa: 12.987,44 €. Epekako prezio osoa: 14.344,44 €, PSA Financial Services Spain, EFC, S.A.ren bidez finantzatua, gutxienez 48 hilabetez. Kontratuaren amaieran, ibilgailua entregatu edo azken kuota ordaindu edo birfinantzatu dezakezu. Finantza-onespena behar du. Eskaintza hau ezin da metatu eta 2019/12/31ra arte da baliozkoa. Finantzatzen ez duten bezeroentzako PRPa: 13.000 € eta ikusgai dagoen N208 5P GT Line Puretech 100 S&S 6 Vel MAN modeloerentzat: 18.500€.





Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Mainer Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Iñaki Lizarraga

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzukizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

# Eskutitzak

## PSOE, beti bezala, baloiak kanpora jaurtitzen

Oposiziokoak ez badira, etxe bizitzen jabeak omen dira, Arraguetako kasuan lez, bizilekuak hain egoera txarrean egotearen erantzule bakarrak. Ez al duzue zuek inoiz erantzukizunen bat duzuenik pentsatu? PSOEko jaun andreok, etxejabeek izan dezaketen erantzukizuna alboratu gabe, gogorara zi nahi dizuegu etxe horiek 51 urte daramatzatela **ordenaziotik kanpo** (ñabardura hau, hori bai kasualitatea! ez zen *El Diario Vasco*-n agertzen!). Horrek esan nahi du "hirigintza legediak debekatu egiten duela obrak egitea eraikin haietan, zeintzuetan beraien balio justu teorikoa handiagoturik geratuko den plangintza berria garatu ahal dadin, Orde-

naziotik Kanpo dagoen eraikinaren desjabetzea gerta baledi". Igaro diren 51 urteetatik zuek 32tan erantzule zarete.

Mendi maldetan eraikitzea baimendu duzue, Sautxin, Egazelain...eta, orain, Bolingua agertzen da. Ostera, bost axola zaizue hiriaren behe aldeko zenbait kalek jasaten ari diren endekatzea; hor ditugu Errebal (gaur arte), Arragueta, Txonta, Matsaria, Barrena, Azitain... Arestian aipatu dugun hiriko behe aldearen endekatzean zuen erantzukizuna onartu ezazue, kudeatzaile onak omen zarete-neko ipuinetan jardun gabe. **Aski da!!**

NAN 15.341.151 J

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MONTXOR.**-Eraikiten ari diren etxe bati teilatu ematean egiten den oturuntza, etxeko ugazabak bihaginei pagatuta. "Atzenian, teillatua amaitzen zanian, afari bat! Afari ona: ardaua, ta kafia, ta kopia".

## astean esanak

"Mundu guztiari, 25 urte egin eta berehala, 120.000 euro ematea ahalbidetu dezakeen zergaren aldekoa naiz. Guztiok izan beharko genuke kopuru hori eskura, burujabe izateko bada ere, eta enpresak sortzen dituztenek euro milioi batzuk. Baina batek ehundik gora milioi izatearekin ez dugu ezer irabazten. Mila milioitik gora dituztenek %90 ordaindu beharko lukete; kopuru horrekin, oraindik 100 milioi geratuko litzaioke, nahikoa proiektuekin jarraitzeko. Aukerak zabaldu behar dira, ez atzeritar behartsuei jazarri"

(THOMAS PIKETTY, EKONOMILARIA)

"Azken finantza krisiak egiaztapen umiliagarria laga du: lanak ez du dagoeneko piperrik balio. Egun, ekonomiaren funtsa ez datza salgai fisikoen ekoizpenean; sektore gehienak defizitarioak dira. Haizea baino ez diren titulu birtualen salerosketan dago plusbalioa, ez behinola bezala patrioak langileei ordaintzen dienaren eta produktuen prezioaren arteko dekalajearen. Testuinguru horretan, prekarietatea saihetsezina eta itzulerarik gabekoa da. Lan egiteari laga behar dio gizakiak; ez burujabetzeko soilik, espeziea bera salbatzeko aukeraren bat izateko baizik. Hobe ez kobratzea"

(DANEL AGIRRE, ZUTABEGILEA)

"Hogei urte daramat jendea nik egiten dudanari egokitu dadin saiatzen. Eskuekin jatea eskatu izan diet; orain atseginagoak izan nahi dugu. Aurtengo mokaduetako bat bizirik dauden angulekin prestatu dugu, dashi salda bateko kapsuletan sartuta. Denetarik esan didate sareetan. Gura galdera hau da: Jango zenuke bizirik dagoen animalia bat? Zerk egiten dizu aurka: zure etikak, zure higuinak? Bakoitza bere beldurren, bere aurreiritzen aurrean kokatzen dugu. Hildako angulak jaterakoan, badakizu aurretik tabakoarekin ito dituztela, edo bizirik salteatu? Hobe da hori haginkada bat eman eta lehenago amaitzea baino?"

(ANDONI LUIS ADURIZ, SUKALDARIA)

## Errebal Plazia egitteko biharrak “martxa onian” doiaz

Aurreko astian emondako prentsurrekuan, Errebal Plazia egitteko biharrak “martxa onian” doiazela azaldu eban Jon Iraola Obra eta Hirigintza ziñegotzixak: *“Laster amaittuko ditue hormigoi armatuko egituraren biharrak eta 2020. urteko*



*urtarrillian ekingo detse erabillera anitzeko plazako estalki gardenari eutsiko detsan metalezko egitura ipintziari”.* Aurreikuspenak betez gero, 2020. urteko azarorako biharrak amaittuta egongo dirala esan dabe obrako arduradunak, *“baiña, halanda be, leikiana da biharrak aurreikusittakua baiño hiruzpalau aste aurretik amaittuta egotia”.* Esandakua arabera, garajiak ixa amaittuta dagoz, baiña eraikiñaren iragagaizte lanak pentsatzen zana baiño sosiguzago doiaz, azaruan ixa eguero eurixa egin dabenez ezin izan dabezelako egin. Horrekin batera, merkatu plazarako zatixa eraikitze eritmu be motelago doiala esan eban, *“martxan dagan parte-hartze prozesuan hartuko diran erabagixen menpe dagualako, hori guztiz definidu arte ezin dabe aurrera egin”.* Edozelan be, erabagitzeke dagaizen kontuak laster zihetzuta egotia espero dabe. Errebalen erabillera anitzerako gunia egitteko biharrak Iza y Campezok osatutako ABEeri esleitu jakozen otsailian, 5.369.178 eurotan (BEZa barne).

## Anbulatorixoko larrialdi-zerbitzua lehengora bueltatzia eskatu dau Udalak

Torbio Etxebarria kaleko ambulatixuan eskintzen daben larrialdi-zerbitzua ordutegixak murrizten hasi dirala eta, alkatiak horren inguruko kezka azaldu detsa Nekane Murga Osasun sailburuari. Izan be, ambulatixoko larrialdi zerbitzuak funtzionatzeari laga detsa, astegunetan 17:00etatik aurrera eta, asteburuetan, 21:00etatik aurrera. Udaletik azaldu dabenez, zerbitzua murrizketiak bat egin dau aurtengo Gripiaren kontrako kanpaiñarekin: *“Zerbitzuak aste batzuk daroiaz bakarrik asteburuetan zabaltzen, 09:00etatik 21:00etara, eta astelehenetik barixakura, Etengabeko Arreta Gunian (EAG) ez dabe zerbitzurik emoten. Goizeko 08:00etatik 17:00etara, barriz, lehen maillako arretarako medikuak arduratzen dira larrialdixekin. Oin dala gitxira arte, ambulatixoko larrialdi-zerbitzua 08:00etatik 17:00etara eskintzen zan, eta 17:00etatik 24:00etara, barriz, EAG izenekua eguan martxan”.* Baiña egin daben murrizketia dala-eta, ointxe *“eibartarrak ezin dabe zerbitzu hori erabilli”* Torbio Etxebarria ka-



leko ambulatixuan, astelehenetik barixakura 17:00etatik aurrera eta asteburuetan 21:00etatik aurrera. Alkatiak diñuan ez, *“egoera barrixak zerbitzu barik lagatzen dittu hirixaren erdialdeko eta ekialdeko eremuak, hain zuzen be Eibarren biztanle-densidade handiña daken guniak”.* Gauzak horrela, herritar askorek kejak jasotzen ari dira eta larrialdixetara jotzen dabenak luzaruan egon bihar dira zain, arreta emoten detsen arte. Arazua konpontzeko, sailburuari lehengora bueltatzeko eskaeria egin detsa Udalak.



## Arraguetako 17xa aurri egoeran daguala-eta, bizilagunak ezin izango dira bueltau

Aurreikusitta eguan moduan, Arraguetako kaleko 17. zenbakiko jabetzak eraikiñaren egoeriaren barri emon zetsan Udalar aurreko astian eta, horrekin batera, bere erabagixaren inguruko txosten teknikua aurkeztu dau. Alkatetzatik jakinñarazi dabenez, txosten teknikan jaso dabenaren arabera, bertako bizilagunak ezin izango dirala euren etxietara bueltau ondorioztatu dabe eta, horrekin batera,

eraikiña aurri egoeran daguala azaldu dabe. Gauzak holan, *“bizilagun horrerri batkotxaren egoeriaren arabera urtenbide bat emoteko”* Udalak biharrian segitzen dabela esan dabe. Jabiak aurkeztu daben txostenari alegaziñuak egitteko epia zabalik dago eta, horretarako epia amaittuta holakorik aurkeztu ezian, hurrengo pausua eraikiña eraitsi ahal izateko tramiak hastia izango da.





## Aurten be Sanandresak Gasteizen ospatzen

Abenduaren 1ian ospatu eben San Andres Gasteizen bizi diran eibartarrak. Aurtengua 21. ediziñua izan da eta, jaixarekin hasteko, Eibar foball taldiaren banderarekin egin zetsen harrerria Toloño tabernan Mari Carmen Bargañok eta Enrique Fuentesek. Txikiteuan ibilli eta alka-

rrekin bazkaldu ez eze, eibartarrak Ama Zuriaren Plazan "Lau teilatu" kantatzeko tartia hartu eben, EITB Maratoirako antolatatu zan ekimenarekin bat eginda. Eta sorpresarik be euki eben, Juan Luis Santamaria atzera be bere Lambretarekin agertu zan-eta. Jai-egun biribilla!

## Arrateko pago batzuk mozten dihardue

Amelie boraskak eragindako haize bortitzak Arrateko pago batzuk bota zittuan. Baztuzen eritiz, eroritako arbolak zaharrak ziran eta, pipiak janda eguazelako bota zittuan haiziak. Beste baztuzen ustez, baiña, inguruko piñuak mozterakuan, paguak babes barik geratziak eragin eban horrenbeste arbola jaustia eta baten batek arbolak iñausita adarretako pisua arindu eta gertatutakua saihestu leikia be azaldu eban. Edozelan be, haiziak arbola gehixago botatzeko arriskua gitxiagozteko asmuarekin edo, egunotan hainbat pago mozteko biharrian dihardue Arraten, Jorge Iturricastillok aste honetan egindako argazkixan ikusten dan moduan.



## TRAFIKO ALDAKETAK AZITTAIN-BARRENAN

Azittaingo tren gerealura sartzeko oiñezkuendako pasabidia muntatzeko biharrak dirala eta, Barrena kaleko trafikua eten egingo dabe barixaku gabeko 23:00etatik zapatu arratsaldeko 18:00rak bittartian eta horrek trafikuari eragingo detsa: SS-BI norabidian, Azittain/Barrenako sarrerria itxitta egongo da era guztietako ibilgailuendako, Murrategi eta Saratsuegira sartu nahi dabenendako izan ezik (bestiak bariantia eta ordezko sarrerak erabilli biharko dittue); eta BI-SS norabidian, 3.500 kilotik gorako ibilgailuak derrigorrez urten biharko dira bariantetik eta Sautsirako bidia erabilli ahal izango dittue N-634 errepiderantz segitzeko.



● **tartak**

● **enkarguak**

**etxera**

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Izadi

**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

C A D E N A

SER

104,0 FM



Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

EIBAR



Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko  
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea



TUTULUMENDI



IDURRE  
IRIONDO

## Etixerik etxeko biharrari buruzko hitzaldixa

Bixar "Zaintza eta etxez etxeko langileen eskubideak" izenburuko hitzaldixa egingo da Portalean (ikastaro gelan, 3. pisuan), 18:00etan. Liz Quintana abokatuak eta Etxekotu Gabeko Emakume Langileak taldeko kidiak egingo dau berba eta, bestiak beste, etxerik etxeko biharraren esparruan sortzen diran harremanak, baldintzak, egoerak, gatazkak, bihargiñen eskubidiak, aukeriak eta aldarrikapenak izango dira hitzaldi ireki horretan eztabaidatuko diran gaixak. Eibarko Udalak eta Mundubat kooperatiba alkartiak antolatu dabe saia, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta, diñuenez, "azken urtiotan, euskal gizartiak zahartzerako dakan joeriak eraginda, zaintza eta etxerik etxeko lanbidia haunditu egin da eta, horrelako biharrak egitten dittuen gehixenak andrazkuak, batez be atzerritar jatorrixa dakenak izaten dira". Horrek goguan, informaziñua ezagutzera emoteko asmuarekin antolatu dabe saia. Sarrera dohaiñik izango da.



## Odol-emotailiak lortzeko biharrian Amaña eskolakuak

Amaña ikastetxeko ikasliekin odol-emotailiak lortzeko proiektua "ilusio haundixarekin" lantzen dihardue: "Erronka Amaña auzuan zein Eibarren odol-emotailiak lortzia da. Horretarako, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartekoen eta Sabin Urzelai bertako presidentiaren laguntasuna izaten ari gara. Erronka lortzeko bidian, ikasliak arlo desberdiñak lantzen dihardue: matematikak, ingurua ezagutzia, euskaria...". Amaña ikastetxian odola emoteko eguna gaur izango da, 16:30etatik 18:30xetara, baiña ingurukuak gaixarekin sensibilizatzeo asmuarekin, aurretik hainbat jarduera eruan dittue aurrera: Star Wars pelikulako personajiak (odol-emotailiak) eskolara jua ziran, "euren galaxiatik mezu bat ekartzeko: planeta honetan ez da odolik fabrikatzen, alkarreri lagundu bihar detsagu. Ikasliak izugarri disfrutau ez eze, primeran barneratu eben mezua. Eta, horrekin batera, 4., 5. eta 6. maillakuak auzora urten dira pare bat egunetan, jendiari informaziñua emoteko eta 1., 2. eta 3. maillakuak, barriz, auzuan pegatzeko kartelak egitten ibilli dira". Ikastetxeko arduradunak "bihotz-bihotzez" eskerrak emon nahi detsaz Sabin Urzelairi, emon detsen laguntasun haundixarengaittik.

## Algaraklown kalendarixuak salgai

Aurten be Algaraklown ospitaleko paillazuen alkartekuak egutegixa emon dabe argittara eta hori saltzen egongo dira bixar goizian, 10:00etatik 14:00xetara Untzagan (Kutzaren parian). Egutegixak salduta lortzen daben dirua urte osuan zihar egitten dittuen jardueretarako erabiliko dabe. Egutegixekin batera, poltsak, sudurrak, giltzarriak, pultserak eta katilluak be ipiñiko dittue salgai.



## Matilde Moreno

I. Urteurrena: 2018-XII-12

"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"

ETXEKOAK





## Gipuzkoako garbitzailiak eta zaintzailiak greba hasi dabe

Soldata-arrakalarekin amaitzia aldarrikatzeko eta ELA sindikatuak deittuta, Gipuzkoako Eraikin eta Lokaletako Garbikuntzak greba hasiko dau abenduaren 17xan. Sindikatuko ordezkariaren berbetan, *“negoziaziñua ez atzera ez aurrera dago aspalditik, patronalak dakan jarrera itxixak eraginda. Batetik, arrakala bera ukatzen dau eta, bestetik, ez dau KPlaren erreferentzia onartzen. Eta hori gitxi balitz, ‘año vencido, año perdido’ bota dau, hitzez hitz. Hau da, akordiorik lortzen ez dan urterako soldata igoerarik ez dabela proposauko diño. Horregaittik, 2019. urtia amaitzear dala, sektoriak greba hasiko dau, jarrera itxi hori salatzeke eta bertan behera lagatzeko exijitzeko”*.

Horrekin batera, atzo hasi eben greba baita be Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentruetako bihargiñak, horrek be ELA sindikatuak deittuta. Urtarrillaren 10era arte egongo dira greban eta dagoeneko 180 eguneko lanuzteak egingo dittue sektorian. Bestiak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren “hipokresia” kriti-



kau dabe eta, euren berbetan, *“ez jakuez interesatzen ez andra bihargiñak, ez famelixak, ezta erabiltzailiak be. Sektore feminizatu batian prekariedadia sustatzen dabe, sektore maskulinizatu en aldian 6.000 euroko soldata-arrakala dago-eta”*.

asteko  
**30.000**  
datua

*euroko udal-inbersiñua egin dabe, lan barik daguazen 30 eibartarrendako formaziñua eskintzeko. Programia 45 urtetik gorakuendako eta ahulezia-egoeran daguazen andrendako da eta izen-erotia hillaren 20ra arte egongo da zabalik.*

## Erabillittako liburuak eta egutegixa salduko dittu Eibar-Sahara alkartiak



Eibar-Sahara Elkartekuak liburu azokia zabalduko dabe asteburuan, Untzagan. Gaur arratsaldian, 17:00etatik 20:00etara egongo dira; bixar egun osuan, 10:00etatik 20:00etara; eta domekan 10:00etatik 14:00xetara. Beste batzuetan egitten daben moduan, erabillittako liburuak ipiñiko dittue salgai, merke-merke (1, 3 eta 5 eurotan). Horrekin batera, datorren urterako egin dittuen egutegixak 5 eurotan erosuteko aukeria be egongo da.



## Umieri Gabonetan banatzeko jostailuak bilduko dittue gaur

Ermua eta Eibarko Gazte Sozialistak Gabonetan umieri banatzeko jostailuak biltzeko kanpainaekin bat egin dabe eta, horren harira, gaur Untzagan, udaletxiaren parian egongo dira, 17:00etatik 19:00etara, jendiak emon nahi dittuan jostailuak hartzeko gertu eta, trukian, laguntzen dabeneri esker ona azaltzeko, txokolatua eta bizkotxuak banatuko dittue. Gurutze Gorrixak antolatzen daben kanpainaarako jostailuak, ahal dan neurrian, *“barrinak, hezitzailliak, ez sexistak eta indarkerixia sustatzen ez dabena”* izatia eskatzen dabe.



## ANA JESUS LOPEZ LARIZ

2019-XII-1ean hil zen

*“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”*  
EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.

Zure Eibarko kuadrilla





## Ion Fizen "Eskema" erakusketia zabalduko dabe gaur Museuan

Gaur 19:30xetan inaugurauko dabe Ion Fiz diseinadore eibartarraren "Eskema" izenburuko erakusketia, Armagintzaren Museuan. Ekitaldixan, Udaleko ordezkariarekin batera, Ion Fiz egongo da. Urtarrillaren 12ra arte zabalik egongo dan erakusketan, bestiak beste, Ion Fizek 2002xan bere firma sortu eta lehen kolekziñua aurkeztu ebanetik gaur egun arte egin dittuan diseinuen zirriborruak eta oharrak ipiñi dittu ikusgai lehenengoz. Horrekin batera, goi-

maillako joskintzako soiñeko batzuk be ikusteko moduan egongo dira eta, baten batek zeozer erosi nahi badau, horretarako aukeria be egongo da, udazken/negurako kolekziño barrirako egin dittuan jantzixak eta osagarrixak saltzeko "pop store" edo dendia egongo da-eta. Erakusketia ikusi nahi dabenak Museua zabalitzen dabenian izango dau aukeria, eguazten, eguen, barixaku eta zapatueta 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00era.

## Burbujas y Mas dendiak "10 bitxiak" sarixa jaso dau

Azaruaren 22xan banatu zittuen "10 bitxiak" sarixak Gipuzkoako Merkataritza Ganberakuak eta Estaziño kaleko Burbujas y Mas dendako Vanesa Torrek jaso eban Debabarrenerako banatzen dan sari bakarra, eskualdeko merkatarixak halan erabagitta. Zorionak!



## Venezuelako arepak egin zittuen Munduko Janarixen taillarrian

...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan eta Ongi Etorri programetako kidiak Venezuelen tipikuak diran arepak egin eta dastatzeko aukeria euki eben Munduko Janarixen taillerreko azken saiuan: "Hamar bat lagun gerturatu ziran Portaleko sukaldera eta, Amandak gidatuta, arepa goxo-goxoak preparau zittuen. Arto-urun txurixa, ura eta



gatz apur bat nahikua izan ziran arepak egittek eta, barrualdia betetzeko, tomatia, kipulia eta arrautzak nahastau zittuen. Bapo afalduta juan ziran etxera". Hurrengo saiua urtarrillaren 21ian izango da eta egun horretan Nepal aldeko janarixa prestauko dabe.

## Bigarren Eskuko Azokia egingo dabe bixar Untzagan

Gabonak gerturutzen doiazela aprobetxauta, Udalak antolatuta Bigarren Eskuko Azokia egingo da bixar goizian Untzagan, 10:00etatik 14:00xetara. Horretarako, karpax bat ipiñiko dabe Untzaga plazan eta barruan salmenta postuak egongo dira, parte hartzera animau diran herriko alkarte, ikastetxe eta herritarrak eruandakuak saltzeko.



## M<sup>a</sup> IDOIA IRCIO EZQUER

2. Urteurrena: 2017-XII-13

"Zure berotasunak gurekin darrai.  
**MAITE ZAITUGU"**

Ondarra eta Ircio familiak







# GIPUZU

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



# N K



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN



Aurtengo San Andres eguna euripean ospatzea tokatu zaigu, baina, hala ere, antolatutako ekitaldi guztiak egin ziren eta, eguraldiaren gaineratik, jairako gogoia eta umore ona nagusitu ziren gure herriko patrioiaren omenezko egunean.

# Euripean

Udalaren eskutik egin zen XLI. San Andres Nekazal Azokak, urtero bezala, jende asko bildu zuen. Untzaga eta Txaltxa Zelaian ipinitako karpetan denera 70 postutik gora egon ziren eta, azokaren amaieran, onenentzat sariak banatu zituzten: barazkietan, lehen saria Argiñe Rubiok (Elgoibar) jaso zuen eta bigarrena Alejandro Arrietak (Markina); frutetan, lehena Juan Elosegik (Gabiria) eraman zuen eta bigarrena Miren Pakea Galdosek (Gabiria); ezti onena, berriz, Aitor Otegirena (Urretxu) izan zen eta bigarren onena Mikel Jauregialzorena (Oñati); gaztetan, lehen saria Bidane Baskaranek hartu zuen (Markina) eta bigarrena Jesus Aranburuk (Idiazabal); ogietan, Lourdes Malaxetxeberriak (Berritxu) irabazi zuen lehen saria eta Jonatan Saratxagak (Galdames) bigarrena; aurkezpen onenari sariak Argiñe Rubiok (Elgoibar) eta Oier Agirrebeñak jaso zituzten (Eibar); eta azken honek eraman zuen, baita ere, Eibarko baserri onenari saria. Horrez gain, aurtengo San Andres kartel lehiaketako eta Eibarko Pintxo Lehiaketako irabazleei ere banatu zizkieten sariak.

Bestalde, San Andres egunean **Urbat** taldeak egindako zozketan, otarra 849 zenbakiak eraman du eta irabazlea dagoeneko agertu da. Urbatek eskerrak eman nahi dizkie eibartar guztiei, *“urtero garai honetan emandako laguntzagatik”*.

Eta **Amañako Jaietako** zozketako irabazleak, berriz, Debako Itziar Urain eta Eibarko Izaskun Bustindui izan ziren. Zozketaren antolatzaileek San Andres egunean rifak erosi zituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkie, Amañako jaietako emandako laguntzarengatik.

ARGAZKIAK  
(Malen Jainaga)  
ETA BIDEOA  
GURE MEDIATEKAN,  
[www.etakitto.eus/mediateka](http://www.etakitto.eus/mediateka)  
HELBIDEAN  
DAUDE IKUSGAI









# Montzoiak ekarri zuen Ahsen

Ahsen Lalamusa Pakistanen jaiotako jaiotako, Punjab probintzian, biztanleria handiena duena. *"Bero ikaragarria egiten du han, hemen gustorago sentitzen naiz"*. Pakistango iparraldera joan ahala, itsas-mailaren altuera gora doa, Himalaia mendilerroarekin topo egin arte. Eta beroa eta Himalaia formula berean sartuta, hain ezaguna den montzoia sortzen da. *"Urte osoan zehar lehorteak eta beroa pasa ondoren, uztailean eta abuztuan demaseko euriteak egoten dira"*. Euriteen ondorioz Ahseenen etxean ura sartzen zen eta, kokoteraino zegoenez, familiarrentzat etxe berria eraiki nahi zuela erabaki zuen. *"Horregatik etorri nintzen Europa"*.

## Etxe berri batengatik lanean

Mönchengladbach (Alemania) izan zen bere lehen geltokia Europan. *"Hiru urtez egon nintzen han eta emakumeen arropa saltzen ibili nintzen"*. Vienan (Austria) beste hiru urte egin zituen eta jatetxe bat jarri zuen lagun batekin. Katalan Herrietara joan zen ondoren, Bartzelonara lehenik eta Valentziara gero, eta handik Bergarara etorri zen. *"Familiako batzuk bizi ziren han"*. Azkenik, 2007an, Eibarrera iritsi zen. *"Lokutorio bat jarri nuen lehenik, gero janari-denda bat, ondoren fruta-denda bat, Ermuan telefonodenda bat eta, orain, jatetxe bat Arraguetan"*. Buruzagirik izan nahi ez zuela erabaki zuen orain dela urte batzuk eta bere kabuz lan egin hasi zen. *"Ez zait besteentzat lan egitea gustatzen, nahiago dut lan gehiago egitea eta gutxiago irabaztea, baina niretzat lan egitea. Askatasuna sentitzea oso garrantzitsua da niretzat"*. Eta bere asmoa lortu du. Gainera, lan asko egin ondoren, bere helburu nagusia betetzea lortu: familiarrentzat etxe berria eraikitzea.

## Munduko biztanlea

Ahsenek munduko biztanletzat du bere burua. *"Hainbat herrialdetan bizi izan naiz eta mundu osoko pertsonak ezagutu ditut. Horrek nire ikuspuntua eta pentsamoldea aberastu eta zabaldu du"*. Urduz, punjabieraz, alemanieraz, ingelesez eta gaztelaraz ondo berba egiteko gai da, eta euskeraz berba batzuk esateko gai da. *"Eibartarrek euskeraz gehiago egingo balute, berehala ikasiko nuke"*.

## Esku-azpiak irakurtzen

Izarrak eta esku-azpiak irakurtzeko zaletasuna du, eta ikasketak egin ditu ho-



Eibartarrek euskeraz gehiago egingo balute, berehala ikasiko lukeela uste du Ahsen-ek. **Ekhi Belar**

ren inguruan. Gainera, psikologia eta medikuntza naturala ikasi ditu baita ere. *"Esku-azpiak irakurrita pertsonen izaera eta nortasuna irakurtzeko gai den pertsona asko dago Pakistanen"*. Aspalditik datorren jakintza da bere ustez. *"Orain dela 5.000 urte baino gehiago jendea bizi zen Indiako azpikontinentean eta, ondorioz, gizaki askok ez dakizkiten gauzak dakizkigu"*. Medikuntza naturala goraiatzeko du eta, era berean, berba onak ditu Eibarren aurkitu duen osasun-sistemarekiko. *"Nire sendagilea zoragarria da, baina tratatzen nau"*.

## Pakistango eta Indiako janariak

Pakistan eta India herrialde ezberdinak badira ere, herri bera osatzen dutela dio Ahsenek. *"XVIII. mendean Britainiar Inperioko Indiako azpikontinentea konkistatu zuen eta 1947an, alde egin zutenean, India eta Pakistan banatu eta herrialde bi sortu zituzten. Erlitio nagusia ezberdina da herrialde bietan, baina gure kultura eta ohiturak berdinak dira, edo antzekoak behintzat"*. Gastronomía ere antzekoa da eta Ahseenen jatetxean herrialde hauetako jakiak jateko aukera dago. *"Pakistanen egongo banintz bezala jaten dut hemen"*.

**"Lan egin behar duzu,  
ez duzu inbidiarik izan behar"**





**berria!!!**

Laster buzoietan!

**“Eibarko kaleak eta iturriak”**

+

2020ko GIDA

Eibarko enpresa,  
zerbitzu, komertzio,  
tabernak...

# Gabonetako OTARRA



Euskara Elkarte

## Eskerrik asko emandako laguntzarengatik:

- ARRIOLA PRENTSA
- ECHETTO PRENTSA
- ISASI OKINDEGIA
- BOLINTXO OKINDEGIA
- ARRIAUNDI OKINDEGIA
- MUGIKA HARATEGIA
- OTEGI HARATEGIA
- MARIA OSPITXAL (F. Calbetón)
- KULTU TABERNA
- ZUBI-GAIN TABERNA
- GURIDI TABERNA
- UDAL EUSKALTEGIA
- AEK EUSKALTEGIA

2.000 euroko otarra

# 08.441

zenbakiarentzat

abenduaren 26rako

ez bada irabazlea aurkezten, ordezkioak sartuko dira jokoan, orden honi jarraituz:

**03.575** abenduaren 27tik  
urtarrilaren 11ra

**09.852** urtarrilaren 12tik  
urtarrilaren 27ra

**10.120** urtarrilaren 28tik  
otsailaren 12ra

## Eskerrik asko Eibarko herriari!!!

Lortutako dirua EIBARREN EUSKARAREN ALDE erabiliko dugu

# Egitarau potolua GABONAK girotu eta betetzeko

**E**ibar Merkataritza Gune Irekiaren Gabonetako kanpainaaren aurkezpenak bat egin eban kalik apaintzen dituden argiak ixotzeko Eibarko Bizikleta Plazan egin zan jaialdixarekin, azaruaren 28xan. Presentaziñuan esandakuaren arabera, aurtent Gabonak girotzeko antolatu dituden jardueretarako aurrekontua 150.000 eurotik gorakua da eta hortik 54.000 euro argiak ordaintzeko erabiliko dittue (34.800 euro Eibarko Udalak ipiñi dittu eta gainontzekua Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saillak).

Beste batzuetan bezala, aurtent be **barrakak ipiñiko dittue: Txaltxa Zelaixan** zortzi atrakziño egongo dira martxan eta, horrekin batera, anbulatorixo pareko parkian karruse-la ipiñiko dabe, abenduaren 20tik urtarrillaren 6ra bittartian. Barraketarako txartelak, txiki-parkerako bonuak bezala, erosketak egittian eskuratu ahal izango dira. Dana dala, Txaltxa Zelaiko barraketan ibiltzeko, bonua aurkeztiaz gain 0'50 euro ordaindu biharko dira (bono barik, barriz, 1'50 euro ordaindu biharko dira biaje bakotzeko). **Astelena frontoiko txiki-parkak** aurreko zapa-tuan zabaldu zittuan atiak eta abenduaren 14an, 22xan, 26xan, 27xan, 28xan, 30ian (11:00-etatik 14:00xetara eta 16:30xetatik 20:30-xetara) eta 31an (11:00etatik 14:00xetara) eta urtarrillaren 2xan, 3an eta 4an (11:00etatik 14:00xetara eta 16:30xetara eta 20:30-xetara) be zabalduko dabe. Aurtengo kanpaina SD Eibar Fundaziñuaren laguntasuna jaso dau eta, hórreri esker, txiki-parkeko bi puzgarri eta Eibarko Bizikleta Plazan ipiñi daben arbolak eurak pagau dittue.



Aurtengo barritasunen artian, bestalde, Errebal Bizirik kanpainaaren baitan, **Urkizun patinatzeko izotz pista** ipiñi dabe. Horretarako bonuak eskuratzeko Errebal eta Urkizu aldeko dendetan zeozer erosi biharko da



(bestela, 3 euro ordaindu biharko dira). Eta bigarren barritasun bat be badago: barruan sartu eta argazkixak egitteko aukeria emongo daben **Gabonetako bola erraldoia** ipiñiko dabe herriko toki diferentietan (Untzaga, Toribio Etxebarria, Ego Gain eta Urkizu inguruan) abenduaren 21, 23 eta 28xan eta urtarrillaren 4an.

Aittatutako horrekin batera, **Eibarko Dendarien Elkarteak** be promozioño berezixak antolatu dittu: abenduaren 17ra arte alkar-teko dendetan erositakua euren txartelarekin pagatzen dabenen artian Gabonetako 60 otar oparituko dittue eta, horrekin batera, bezeruen artian 40 euroko 75 erosketaxartel be oparituko dittue.

Bestalde, **El Corte Inglesak** be programaziño berezixa preparau dau Gabonetarako: bixar eta abenduaren 28xan aurpegi-xak margotzeko taillarrak eskinduko dittue Galtzagorriren Etxian (lehen solairuan, jostailluetan), 17:30xetatik 19:30xetara. Abenduaren 21ian, barriz, Olentzero eta Mari-domingi bisitan juango dira, 18:00etan, behoko solairuan, eta urtarrillaren 3an Meltxor Erregiaren txanda izango da, 18:00etan. Horrekin batera, urtarrillaren 4an, 18:00etan, "Mascotas 2" umiendako filma emongo dabe.



## Gabonetarako apaingarrixak egitteko taillarra

Aurreko urtietan bezala, aurtent be Gabonetarako apaingarrixak egitteko taillarra antolatu dabe Armagintzaren Museuan. Domekan izango da, 11:00etatik 12:30xetara eta sarrera duan izango da. Hori bai, aurretik izena emon bihara dago, 943708446 te-





lefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita (20 lagunendako tokixa dago, gehixen jota).



### Zure irakorketa gomendixuak Gabonetako arbolan

Gabonetarako zuhaitz berezixa sortu nahi dabe aurten Liburutegixan eta, horretarako, irakorlien laguntasuna bihar dabe: "Gehixen gustatzen jatzuen liburuko esaldi batekin txartela diseinatu, izenburua eta egillia adierazita, eta zintzilikatu arbolan. Txartela nahi dan moduan apaindu leike eta horretarako materixala bertan egongo da". Parte hartzen daben guztien artian sarixak zozketatuko dittue.

### Dantzak eta musikia Gabonak girotzeko

Gabonak gertu daguezala eta, gaur 19:00etatik aurrera kalia hartuko dabe Bira-kako dantzariak. Anbulatorixo pareko parketik abiauta, Untzagaraiño juango dira kalejiran, Toribio Etxebarria kaletik, behin Untzagara ailegautu Gabonetako abestixekin emanalditxo bat eskintzeko. Danera 300 dantzari inguruk hartuko dabe parte eta iraupena 40 miñutu ingurukua izango da.

Eta dantzak ez eze, musikiak be aparte-

ko tokixa beteko dau datozen egunetako eskintza kulturalaren barruan: Cielito Eibar-ko Musika Bandak domekan emongo dau Gabonetako kontzertua, 12:30xetan Coliseo antzokixan; Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakuak, eguaztenian, 19:00etan, Coliseo antzokixan (3 euro); Sostoa Abesbatzaren Gabonetako kontzertua abenduaren 20xan izango da, 20:30xetan San Andres elizan eta, abesbatzarekin batera, Juan Bautista Gisasola Koruak eta Eibarko Koro Gazteak be jardungo dabe; Usartza Txistulari Taldekuak abenduaren 22xan egingo dabe, 12:00xetan Untzagan eta Sostoa Abesbatzakuak lagunduko detse; eta Debabarreneko Orfeoiaren kontzertua be abenduaren 22xan izango da, San Andres zaharren egoitzan, 17:00etan.



### Olentzeroren buzoia eta Errege eguneko dantzetarako txartelak

Olentzerori gutuna idazten detsenendako buzoiak be prest dagoz Pegoran eta Portalean. Nahi dabenak abenduaren 23ra arte bota leike bertan kartia edo, bestela, abenduaren 24an egingo dan kalejira amaizian, 12:30xak aldera Olentzerori eskura emoteko aukeria be egongo da, udaletzeko patioan.



Eta Errege Kabalgatia urtarrillaren 5ian izango dan arren, aurretik Ipurua Kiroldegixan egingo daben dantza ikuskizunerako tiketak abenduaren 19xan banatuko dittue, 09:00etatik aurrera, Kultura saillian (Portaleko 1. pisuan).

### Eguenian zabalduko dabe Eibart azokia

Eibart Gabonetako 15. Artisau Azokia abenduaren 19xan zabalduko dabe, Untzagan. Eibart Eibarko Artisauen alkartiak antolatzen daben azokan 14 artisauk (Gorakat, Calmada, Eskulan, Ahiztak, Hartara, Kilikillima, Nieves Maidagan, Maripilis, La Zaera, Leo&Lilo, Darama, Dir, Portela eta Anitha Mol) hartuko dabe parte aurten, eskuz egingo produktu eskintza zabalarekin: pitxiak, haurrendako eta helduentzako arropak, poltsak, artilezko kopiñak, osagarriak, ispi-lluak... Gaiñera 100 euroko opari-txartelak zozketatuko dittue Radio Eibar Cadena SER-en. Urtarrillaren 5era arte egongo da martxan, 11:00etatik 14:00xetara eta 17:00etatik 20:30xetara (abenduaren 25ian eta urtarrillaren 1ian itxitta egongo da).







**JUAN LUIS ATXA:** Orbel-hosto, goi-behe. Naturaren ordena.





**- Zergatik jarri duzue martxan Eibarko elkarte gastronomikoei buruzko ikerketa?**

Igor Etxabek kapital soziala kontzeptua landu zuen bere doktorego tesian. Kapitulu batean Eibarko kasua jorratu zuen, eta enpresen arteko loturak eta harremanak errazten zituzten sare informalak existitzen zirela ondorioztatu zuen. Batetik, Udaleko (alkatea, zinegotziak...) eta enpresetako kideen arteko harremanak aztertu zituen, hau da, harreman formalak. Eta bestetik, harreman informalak. Adibidez, enpresetako kideak Armeria Eskolan ikaskideak, familia berekoak edo koadrilakoak zirela.

**- Zer da kapital soziala?**

80ko hamarkadan soziologiatik jaiotako kontzeptua da. Kapital ekonomikoak dugun dirua azaltzen du, kapital kulturalak zenbateko jakintza dugun, eta badago jendea kapital ekonomikorik edo kulturalik ez duena, baina badu beste era bateko sare bat edo kontaktu batzuk, eta hori litzateke kapital soziala. Ikertzen zaila da, kapital soziala neurtzea zaila delako. Zein el-

karte gastronomikotan zauden, zein kirol-taldetan jokatzeko duzun edo zenbat laguneko koadrila duzun jakin dezakegu, eta nahiz eta neurketa kuantitatiboa ez egin, ondorio batzuk atera ditzakegu. Guk elkarte gastronomikoen eremua aztertu nahi dugu, erregistroan jaso ditzakegun datuekin gurutzatzeko.

**- Antzeko ikerketarik egin da inoiz?**

Ikertetak egin dira, baina ez hain formalki. Oso berritzailea da. Eibar kasu paradigmaticoa da, herri industrial delako eta elkarte gastronomiko asko dagoelako.

**- 1996an ...eta kitto! Euskera Elkarteak herriko elkarte gastronomikoei buruz egindako liburua hartu duzue oinarri. Zergatik?**

Aurretik jaso gabeko datu-base bat dagoelako liburuan. 60 elkarte eta 2.216 kideren izena eta lehen abizena jasotzen dira bertan, eta hortik abia-

Ego Ibarra Batzordeak herriko elkarte gastronomikoen eta enpresen arteko lotura aztertzen duen ikerketa abiatu du. Igor Etxabe Enpresen Zuzendaritzan, Ezagutzan eta Berrikuntzan doktorea dago ikerketaren buru eta Iker Eizagirre eibartarraren laguntza jasoko du datuen bilketan. ...eta kitto! Euskera Elkarteak 1996an herriko elkarte gastronomikoei buruzko liburua oinarri hartuta, sasoi hartako elkarteetako kideak identifikatu eta bakoitzak lana non egiten zuen jakin nahi dute. Lagundu nahi izanez gero, egoibarra2@eibar.eus helbidera idatzi eta 943 70 84 20 telefonora deitu daiteke.

## IKER EIZAGIRRE

(Eibarko elkarte gastronomikoei buruzko ikerketa):

# “Elkarte gastronomikoei Eibarko enpresen arteko harremanak indartu zituztela uste dugu”

tzen gara. Gero, kideak identifikatu beharko ditugu, bigarren abizena zein den eta sasoi hartan non lan egiten zuten eta lanpostua jakiteko, baina badugu nondik hasi.

**- Zer jasotzea espero duzue? Zein da zuen hipotesia?**

Elkarte gastronomikoei Eibarko enpresen arteko harremanak indartzeko rol garrantzitsu bat jokatu zutela da gure hipotesia. Elkarte askotako kideek lantegi berean lan egiten zutela uste dugu, edo elkarteetan lantegi ezberdinen arteko harremanak sortzen zirela, adibidez. Bestetik, Goi Argi elkartearen kasua asko interesatzen zaigu, emakumeen lehen elkarte gastronomikoa edo bakarra izan zelako. 1996an, orokorrean, gizonezkoak bakarrik zeuden elkarte gastronomikoei, eta Goi Argiko datuak falta zaizkigu.

**- Zer moduz datu-bilketarekin?**

Biztanleen erroldaren bitartez elkarteetako ideak identifikatzeko saiatzen dihardugu eta egin dugu kontaktua elkarte gastronomiko batzuekin. Fitxa bat pasatu diegu datuak betetzeko eta elkarte bik bete dute dagoeneko. Eskatutakoa ahal den gehien zehaztea eskertzen dugu. Gu ere tentuz gabiltza, datu pertsonalak eskatzen ditugulako. Gero, datuak publikatzeko orduan, ez ditugu datu pertsonalak jarriko, zenbakiak bakarrik, izen eta abizen barik. Hala ere, ikerketaren berri emateko elkarteek eurengana joatea nahi badute, ez dugu batez ere arazorik, eta Ego Ibarra ateak zabalik dituzte baita ere.

**- Zer egingo duzue jasotako datuekin?**

Datu-bilketa egingo dut eta Igor datuen ustiaketaz arduratuko da. Honen inguruan artikulua zientifiko batzuk idazteko asmoa du. Eibarko ikerketaren inguruan sakontzen jarraitu nahi du, gai honen inguruan Eibarko kasu interesgarria dela uste duelako. Horrela, etorkizunean Eibarri buruzko liburu monografiko bat egitea da asmoa.

**“Eibar kasu paradigmaticoa da, herri industrial delako eta elkarte gastronomiko asko dagoelako”**

**Julen Leturiondo (musikaria):**

# "Gustoko erreferentziak hartuta, gustatzen zaidan musika sortu dut"

Musikarekin hazi da Julen Leturiondo eta, ondorioz, musika barrenean darama. Hainbat proiektutan ikusi izan dugu orain arte (Parrapas, Eibarko Koro Gaztea...), baina bide propioa hasiko du orain. 'Julen' da musikari eibartarraren proiektu berriaren izena eta otsailean izango dugu bere sorkuntzaz gozatzeko aukera. Bitartean, bere YouTubeko kanalean (Julen) proiektuaren nondik norakoak jakitzeko aukera duzue.

**- Proiektu berria martxan jarri duzula aipatu duzu YouTubean, misterio kutsu batekin. Gauza gehiago kontatu ahal diguzu?**

Pianoa jotzen dut txikitatik eta aspaldi hasi nintzen abesten Eibarko Koro Gaztean eta abar, baina besteen abestiak kantatzeaz kantsatuta negoen. Orduan, etxean nire musika egiten hasi nintzen, melodiaren bat sortzen, baina ez nuen idazten. Behin zerbait idazten hasi nintzen pianoaren laguntzarekin eta ondo zegoela iruditu zitzaidan. Bestetik, ikus-entzunezkoak ikasten dihardut unibertsitatean eta argazkilaritza, bideo-gintza eta horrelakoak gustatzen zaizkien ikaskide batzuekin talde bat sortu genuen, guztion artean proiektu bat aurrera eramateko. Beraz, guzti hori kontuan hartuta, nire kantuekin ikus-entzunezko sorkuntzak egitea da ideia.

**- Beraz, proiektuaren izena 'Julen' bada ere, ez zaude bakarrik?**

Proiektua bi zatitan banatu dugu. Batetik, bideoak, argazkiak... egiten dituen lantaldea dago, eta ni tartean nago, niri ere gustatzen zaidalako. Eta bestetik, arlo musikala dago, abestiak egin eta zuzenekoak eskaintzeko sortuko dugun banda (proiektuarekin konprometituta egongo den musikari bila nabil). Azken finean, talde bat batu gara nire bar-lari bidea hasteko.

**- Bideoan diozu zure musika aurkitzeko sasoia heldu dela. Nolakoa da zure musika?**

Musika ezberdina entzuten dut. Olatz Salvador eta Izaro asko gustatzen zaizkit eta euren estilorantz jotzen dut, baina Jorja Smith eta soul musika ere asko gustatzen zaizkit. Beraz, oso abesti ezberdinak sortu ditut. Gustuko ditudan erreferentziak hartuta, gustatzen zaidan musika sortu dut.

**- Nolakoa izan da zure musika lortzeko bidea?**

Letrak idaztea kostatu zait gehien. Asko idatzi behar dut zerbait ona idazteko. Arlo musikala, ordea, bestelakoa da. Musikarekin hazi naizenez, barrenean daramat. Nire bizitza ia osoa musika izan da.

**- Hizkuntzari dagokionez, musika euskeraz sortzen duzu?**

Hiru hizkuntza erabiltzen ditut: euskera, ingelesa eta gaztelera. Ez da bilatutako zerbait izaten. Erritmo edo doinuaren arabera hizkuntza bat edo beste erabiltzen dut.

**- Zein momentutan aurkitzen da proiektua gaur egun?**

Sortu dudan abesti baten bideoa egiteko ideiak garatzeko geratu gara Gabonetan, eta urtarrilean Gaztain estudioan sartuko naiz abesti bat grabatzeko. Otsailean ikusiko du argia. Abesti bakarra grabatzea arris-



Iñaki Lizarraga

kutsua izan daiteke, baina ezagutzera emateko modu ona dela uste dugu. Gainera, abestia kaleratzen dugun egun berean bideoa ere argitaratuko dugu. Disko bat grabatzeko denbora, laguntza eta diru asko behar da, eta nahiago dut abesti bakarra egin, baina ona.

**- Zer moduz joan da abestia sortzeko finantzazioa?**

Ez diot inori dirua eskatu, ezta gurasoei ere. Nire proiektua da eta jendeari eskaini nahi diot, familiari batez ere. Diru gehiena trikipoteoetan eta bestelako lanak egiten lortu dut.

**- Nolako abestia da?**

Abesti honen ondoren beste bi egitea da asmoa, trilogia bat sortuz. Abestiek pertsona baten bizitza kontatzen dute eta lehenengo kantuan bizitzako etapa oso ilun bat islatzen da. Berba batean esanda, ezintasuna. Sentsazio hori transmititu nahi dugu abestian eta bideoan, eta publikoarengan antsietate moduko bat sortzea.



Malen Jainaga



## Soraluze Institutuko ikasleek irabazi zuten Debabarreneko Euskararen Ginkana

### Eibarko Ginkanklinak finalean izan ziren

Aurreko astean, eguaztenean jokatu zen Debabarreneko Euskararen Ginkanaren finala, Coliseo antzokian. Andrea Covadonga eta Andrea Garcia eibartarrek gidatutako finala girotzeko eta taldekideak animatzeko, talde finalista guztietako gelakideak egon ziren bertan, antzokia goraino beteta. Finalari hasiera eman aurretik, berdinketa hausteko proba bat gainditu behar izan zuten 4. postura berdinduta iri-

tsi ziren Debako Sonakai eta Eibarko Urki taldeek eta, azkenean, Debako taldea sailkatu zen finalerako. Beraz, finalean lau talde hauek aritu ziren lehian: Martintxo Arrantzale (Deba), Ginkanklinak (Eibar), Soragarriak (Soraluze) eta Sonakai (Deba).

Finala hasita, lau proba burutu behar izan zituzten taldeek. Lehiaketaren lehen fasean, hizkuntza-ekologiaren eta hizkuntza aniztasunaren inguruan lan-



Irabazleek ondo ospatu zuten lortutako garaipena.

du zituzten hainbat gairekin zerikusia zuten probak egin ziren. Horrela joan ziren puntuak irabazten eta, amaieran, talde bakoitzak eskuratutako puntuak zenbatuta, Soraluzeko Soragarriak taldea izan zen aurtengo irabazlea. Ikas-bidairako 800

euro eskuratu zituen talde txapeldunak. Beste hiru taldeak, puntutan berdinduta geratu zirenez, bigarren saria (200 euro), hirugarrena eta laugarrena (100 euroko bi bono Eibar Merkataritza Gune Irekiko dendetan gastatzeko) denen artean banatzea erabaki zen.

Kutxa Ekogunearen Euskararen Ginkana, euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa da. Debabarreneko lehen edizio hau Deba, Eibar, Elgoibar, Mutriku eta Soraluzeko udalen eta Eibarren Akebairan babesarekin burutu da eta Euskaltzaleen Topagunea aritu da koordinazio lanetan, Kutxa Ekogunearekin batera. 21 ikastetxe edo taldek hartu dute parte, guztira DBH 4. mailako 130 ikasle inguru. Internet bidez egin zituzten lau proba lehen fasean eta puntu gehien lortu zituzten lau taldeak pasatu ziren finalera.



Ginkanklinak izan zen gure herriko ordezkari bakarra finalean. Urki atarian geratu zen, 4. posturako berdinketa galdu ondoren.

## KAXAren "Euritan dantzan" bideoak entzuleen saria irabazi du Gaztea Dantzan lehiaketan

KAXA mugimendu eta sormen guneak grabatutako bideoak irabazi du Gaztea Dantzan lehiaketaren entzuleen saria. Gatibu taldearen 'Euritan dantzan' bideoa grabatu zuten KAXAkoek eta 631 boto eskuratu dituzte, bigarrenak baino 207 gehiago. Beraz, Gaztearen jarraitzaileen babes handia jaso dute eibartarrek. Epaimahaiaren saria, bestetik, 'Commfort Inn Ending' lanak irabazi du eta 'Gu Kilometroak' geratu da bigarren.



*jaione yeregi*

## Merkurioa

**Ziur nago zuetariko gehienok, denok ez esatearren, merkurioari buruz zerbait entzun duzuela.** Baina zer da merkurioa? Zer erlazio edo eragin dauka gure gorputz edo osasunean?

Merkurioa metal astun bat da, tenperaturaren arabera likidua dena. Generalki termometroren hodian egoten den sustantzia da. Horiek puskatzen direnean ikusten ditugun zilar kolorezko bola-txoak dira. Merkurioa kaltegarria da osasunarentzat usaindu, iren-tsi eta ukitu ezkeru.

Aspalditik erabiltzen da merkurioa: kimika industrietan PVC-aren, kloroaren... produkzioan. Horien isurketak atmosfera zein uretara heltzen dira. Isurketok, batzuetan kontrolatuak izaten diren arren, tamalez beste askotan ez. Bestalde, erabiltzen ditugun hainbeste elektrogailuk erabiltzen dituzten pilak, ez baditugu behar bezela erreziklatzen, lurra eta, ondoren, ura neurri arrisksuan kutxatzen dituzte. Txertoetan ere kontserbatzaile gisa erabiltzen da merkurioa. Gaur egunera arte ere merkuriozko amalgamak asko erabili dituzte dentistek.

Azken aldian arrainaren merkurio kantitatearekin jendea oso kez-

Azken aldian jendea merkurioarekin kezkatzen hasi da; baina bere ondorio kaltegarrietatik urruntzeko, ez dago zertan arrain urdina jateari utzi beharrik

katuta dagoela entzuten dut. Egia da arrainek gero eta merkurio kantitate handiagoak dituztela euren gorputzean. Itsasoko ura nola dagoen pentsarazten digu horrek. Batez ere, arrain urdinetan eta tamaina handienetakoetan aurkitzen dugu kantitate gehien. Arrain txikiek (sardinak eta antxoak, adibidez), txikiak direnez, merkurio kantitate txikiagoa dute. Aldiz, arrain handiek (atunak, ezpata arrainak...) merkurio kantitate handiagoak izaten dituzte. Arrain handi horien elikagai, kantitate handitan, beste arrain txikiak direlako: merkurio kantitate txikiak pilatuz joaten dira-eta kantitate garrantzitsu bihurtzeraino. Bestalde, arrain urdina Omega 3an aberatsa da, eta garrantzitsua eta onuragarria da hori gure gorputzarentzat.

Beraz, nire ustez, merkurioaren ondorioetatik urruntzeko, ez dago zertan arrain urdina jateari utzi beharrik. Kantitatean dago gakoa. Merkurioa aurki genezakeen hainbat toki aipatu ditugu. Orokorrean horiek sahiesten baditugu, gure gorputzean merkurio kantitatea gutxitu eta gure gorputzak eskertuko digu.

Gure planeta zaintzeko eta iraun dezan gure esku dugu, beste-ak beste, metal astun hori ekiditzea.

*arantza mata*

## Familia eta eskola

**Heziketa kontuetan, ardura gehiegi eman zaizkio irakasleei eta eskolari.** Izan ere, heziketaren ardura nagusia familiarena dela argi dago, eta irakasleak eta eskola heziketa-bide horretan bidelagun garrantzitsuak direla; baina neurri batean soilik, berriro diot parte garrantzitsuena familiari dagokiola. Bestalde, ikasleen onurarako ezinbestekoa da gurasoak eta eskola elkarrekin aritzea, bien artean harreman osasuntsua izatea eta elkarrekintza eta kolaborazioa zain-tzea eta sustatzea.

Halaber, familiak gero eta anitzagoak dira. Familia aniztasun honek aberastu egiten du prozesua, eta aldi berean zaildu. Eskola ere, oso konplexua da, ikastetxe bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak baititu, antolaketa, ohiturak, proiektuak, azpiegitura... Eskolak, familien aniztasun hori onartzen eta aurreiritzirik gabe jokatzeko ika-si behar du, familia bakoitza eta ikasle bakoitza ezberdina dela aha-ztu gabe.

Hots, bi instituzio konplexu hauen arteko harremana kontu handiz zaindu behar dugu, arlo guztietan nola ez, ikasleen kompeten-tziak hobetzea nahi baldin baditugu.

Era berean, ez da erraza izaten harreman hori zaintzean, batzue-tan familiak beldurra baitio eskolara gerturatzeari, eta, beste ba-

Batzuetan familiak beldurra dio eskolara gerturatzeari eta, beste batzuetan, eskolak ere zenbait familiarengana hurbiltzeko beldurra izaten du

tzuetan, eskolak ere zenbait familiarengana hurbiltzeko beldurra izaten du. Honek, hausnarketarako bidea eman beharko liguke eta es-fortzu bat egitea eskatu, bidea bien arteko kolaborazio, parte-har-tze eta elkarlana ezinbestekoak baitira bide luze honetan.

Aitzitik, bai eskolak, bai familiak mugak dituztela izan behar da kontuan batetik, eta, bestetik, ezin dugu ahaztu hedabideak, inguru sozialak, eskolaz kanpoko ekintzek, aisialdiak, Eskola Kirolak... ere badutela ikasleen heziketarengan eragina. Norberak bere espa-rruan, ahalik eta ongien hezitu behar ditu umeak, norberaren mugak gainditzen saiatuz eta guztion elkarlana bilatuz, neska-mutikoen he-ziketa guztiona izatea lortu nahi bada. Eskola zenbat eta gehiago ezagutu orduan eta konfiantza gehiago sentituko dute familiek, gu-rasoei, baita gertutasun-sentsazioa ere. Horrelakoetan eskolareki-ko jarrera baikorragoa izaten du. Ondorioz, eskolak familiak gehiago eta hobeto ezagutuko ditu eta horien premiak ezagutu, eta premia horiei erantzun nahian motibatuagoak arituko dira. Guzti horrek, ikasleen heziketa modu oso aberasgarrian eragiten du.

Guztiok jarrera positiboa izatea ezinbestekoa da, eta egoera erre-alak ahalik eta ongien ezagutzea abiapuntua. Beraz, elkar ezagutzea da bidea eta ezinbestekoa konfiantza-giroa.





# GABONETARAKO

erosketa **GIDA**

## TXUKUNA

**E. Garate, 1**  
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)
- Artileak



## el vestidor

**Errebal, 14**

**607 92 68 86**



*Zorionak!*



Zentro optikoa eta audifonoak



*zorionak eta urte berri on!*

- Opariak egiteko aukerarik onena

**J. Etxebarria, 13**  
943 70 02 30

- Bono bereziak:  
Gabonetan opariak egiteko aukera bikaina



**C A P I**

**Bidebarrieta, 5**

**943 20 15 47**

## Ditare

**Urkizu, 7**  
943 12 73 21



- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak
- Mukizapiak
- Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!
- Pijamak eta bataak

**37 urte zuekin**



**San Juan, 1**  
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua







*zorionak!*

**GRATZINA** Zuloagatarren, 1  
943 82 15 77



**J. Etxebarria, 6**  
943 12 10 07

- Ume eta gazte moda
- Otió 16 urtera arte



**Zuloagatarren, 1** 943 53 67 64



   
**Urkizu, 3**  
943 54 36 97

*Jostailu hezigarriak*  
*Haur ospakizunak*  
*Ludoteka-Bebeteka*  
*Tailerrak*  
[www.ludotekazorionak.com](http://www.ludotekazorionak.com)



**XARE** Zorionak!



**T. Etxebarria, 2** 688 68 16 04

**atelier11** dekorazioa  
\_diseinua\_  
**VINTAGE**  
komplementoak

- Ume eta gazteendako moda **Kopina**



**San Agustin, 3** 943 20 41 81





# Guby

**Birjiñape, 1**  
943 20 28 33  
**Zuloagatarren, 9**  
943 20 12 40

- Ehunak
- Etxerako osagarriak
- Pinturak

[www.bagliettoeibar.com](http://www.bagliettoeibar.com)

## baglietto

**Errebal, 21**  
943 20 19 22



# Jauregui

**San Agustin, 4** 943 20 16 47



- Menajea
- Beira
- Opariak



**Bidebarrieta, 8**  
943 05 60 82

*zorionak eta urte berri on!*



# klaus

- Denda
- Dekorazioa
- Erreformak
- Proiektuak

**Estaziño, 3**  
943 10 58 10

*Zorionak*



*- Betaurrekoak eta opariak denondako*

# umea

**Errebal, 16**  
943 20 31 64



**Ego-Gain, 2**  
943 70 14 08

**ZENTRAL**  
OPTIKA



- Emakumeendako erropa
- Umeendako oparitxoak
- Denetariko osagarriak
- Yoga

- Ekitaldi pertsonalizatuak
  - Lagun Ezkukurako opariak
  - Eibarko markak
- ...eta askoz gehiago



Zure oasia Errebalgo obretan

**Blas Etxebarria, 1**  
(Coliseo ondoan)  
943 84 93 10

**helmet house**  
CONCEPT STORE

## BENICOBA

- Etxeko tresnak
- Sukaldeko altzariak

- Otarra  
(Hoverboard barne)
- zozketatuko dugu  
hilaren 20an  
40 eurotik gorako  
erosketa egiten  
dutenen artean



**Juan Gisasola, 12-14** 943 20 39 02

## KINKILA

Creaciones  
Bebé

**Bidebarrieta, 16**  
943 70 23 29

- Mertzeria



- Pastelak, "txikiak",  
pastak, rellenoak,  
bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera

**Bidebarrieta, 28** 943 20 79 73



## GABON



zoriontsuak!!!



Portaleak 'Gurs experience' erakusketa jasoko du hilaren 19tik aurrera. 'Askatasunarte' elkarteak sortu duen ekimena da eta Bearnon dagoen Gurs kontzentrazio-esparruan bizitakoa jasotzen du, han egon ziren lekukoek testigantzekin. Erakusketa 19:00etan zabalduko da eta 19:30ean 'Gurs, un recuerdo desde el olvido' dokumentala emango dute. Gainera, erakusketaren inguruan bisita berezia eskainiko dute antolatzaileek.



**- Euskal Herritik kilometro gutxira badago ere, gehienontzat ezezaguna da Gurseko kontzentrazio-esparrua. Zer gertatu zen han?**

Gerra Zibilean Espainiatik alde egin zuten errepublikazaleak jasotzeko Frantziako gobernuak modu arinean sortutako kontzentrazio-esparruetako bat da Gurs. Hasiera batean iheslariak jasotzeko eraiki zen, baina Frantzia II. Mundu Gerran sartu zenean benetako kontzentrazio esparrua bihurtu zen. Gursek gure memorian eragiten du, muga igaro zuten euskaldun gehien batu zituen esparrua delako. Iru-netik ordu eta erdira dago eta handik pasa ziren 6.555 euskaldunek benetako kalbariora pasa zuten.

**- Zenbat denboran egon zen martxan Gurseko esparrua?**

1939ko otsailetik 1945era arte egon zen zabalik. Aldi baterako sortu zuten, baina denbora luzatu egin zuten.

**- Zergatik?**

Hara joan zirenak ezin ziren Espainiara itzuli, frankismoa zegoelako. Batzuk beste

herrialde batzuetara joan ziren, baina beste batzuk ez zuten baliabiderik izan. Gero, Frantzia II. Mundu Gerran sartu zenean, beste erabilera batzuk eman zitzaizkion esparruari eta Petainen gobernuaren ustez zitalak ziren pertsonak sartu zituzten: komunistak, librepensalariak, ezkertiarak eta judutarrak. Gurs izan zen Alemaniak ihes egiten mendebalerantz alde egin zuten judutarren helmuga. II. Mundu Gerran asko gogortu ziren esparruko bizi-baldintzak: Auschwitzerantz konboiak irten ziren, ia ez zegoen jatekorik, jendez gainezka zegoen...

**- Jende asko hil zen esparruan?**

Bizi-baldintzak oso txarrak ziren, eta gosearen eta etsipenaren ondorioz jendea hil zen. Hilerrri bat eraiki zuten eta azkar bete zen. Hori latza izan zen, hiltzera bidaltzen zituzten konboiak bezala. Hainbat adituren ustez Alemaniako sarraski-esparruetara jotzen ziren espedizioen zifra ofiziala zifra erreala baino baxuagoa da. Claude Laharie historialaren ustez Gursetik pasatu ziren 12.000 lagun bidali zituzten sarraski-esparruetara, judutarrak batez ere.

**- Zer dago Gurseko esparruan gaur egun?**

Gerraostean Gurseko esparruaren kontua gai deserosoa izan zen Frantziako gobernuarentzat, naziekin kolaboratu zuelako eta berak gainbegiratzen zuelako han gertatzen zena. Beraz, esparrua desegin zuten eta zuhaitzak landatu zituzten, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Urte batzuk geroago, Alemanian zegoen Frantziako kontsul bat Frantziara itzuli zenean, esparruaren egoera ikusi eta hilerria errespetatu egin zutela konturatu zen. Hortik abiatuta memoria berreskuratzen hasi ziren, eta handik pasa ziren lagun batzuk bizirik jarraitzen zuten, han gertatutakoa kontatzen hasi ziren. Memoria berreskuratze-ko mugimendua asko hazi zen eta memoria sortu zuten. Gaur egun esparrua bisitatu daiteke eta tragediaren atsekabea arnastu daiteke bertan.

**- Zer ikusi ahal izango dugu Portaleko erakusketan?**

Aipagarria da Gursen egon zen mugimendu kulturala. Batetik, Espainiako Errepublikaren espiritu kulturala bizirik jarraitzen zuela erakutsi nahi zutelako eta, bestetik, judutarrak heldu zirenean, ospea zuten artistak sartu zituztelako. Historiaren lekuko diren artelanak sortu ziren Gursen. 'Gurs experience' erakusketan Gurseko esparruari buruzko dokumentala egongo da ikusgai. Dokumental apala da, baina hainbat lekukoren testigantzak jaso ditugu eta esparruaren historia kontatzen da, zabaldu zen momentutik itxi arte. Bestetik, interesgarria iruditzen zitzaigun materiala dokumentaletik kanpo geratu zitzaigunez, ikus-entzunezko erakusketa egin dugu horrekin.



## 155 parte-hartzaile izan zituen Eibarko I. Txakur-krosak

Domeka goizean Arraten jokatutako proba horretan, gainera, Andoni Mayo eibartarrak podiumera igotzea lortu zuen, Dexter txakurrarekin hirugarren postuan sailkatuta. Euskanikross taldeko Marco Salazarrek eta Tito txakurrak irabazi zuten proba, Jorge Zapata eta eibartarraren aurretik. Emakumezkoetan, bestalde, Sandra Jimenez bizkaitarra izan zen azkarrena, Nerea Goi-coetxea eta Ainara Fanoren

aurretik; Sonia Dominguez izan zen lehenengo eibartarra, Zeus txakurrarekin. Proba euririk gabe jokatu zen, baina hotz egiten zuen irteeran, 10:30ean. 115 parte-hartzaile ez dira gutxi eta gehienek "ibilbidea oso gustokoa" izan zuten, "paisaiarekin gozatzeko aukera" ematen zuenek. Zortzi kilometroko ibilbidea Kalamua eta inguruko mendietatik osatu zuten eta antolatzaileek probari urtero eusteko asmoa azaldu



Lasterketa amaitu ondorengo irabazleen argazkia, euren sariekin.

dute: "Eskerrak eman nahi dizkietuen egon zirenei eta lagundu diguten babesle guztiei".

## Gabon Trailaren seigarren edizioa egingo dute hilaren 24an

Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta, eta azken urteotakori jarraituta, Gabon Traila proba egingo dute egun horretan. Klub Deportibo aurretik irtengo dute goizeko 08:00etan eta toki bere-



an amaituko dute, aurretik erraza egiteko moduko 15 kilometro eta erdiko distantzia osatu ondoren. Gutxi gorabehera "hiru ordutan egiteko moduko ibilbidea" osatuko dute, 757 metroko goranzko metatua gaindituta. Trail irteera doakoa da eta edozeinek hartu dezake parte, baina antolaketa lanak errazteko izena ematea beharrezkoa da (kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com). Antolatzaileek diotenez, komenigarria da "mendian korrika egiteko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait" eramatea; aldi berean, mendian federatuta egotea ere gomendatzen dute. Hori bai, horrelakoetan gero eta jende gehiagok parte hartzen badu ere, orain arte probatu ez dutenei animatu nahi diete "gozatzeko aukera bikaina delako urtea agurtzeko ohitura hau". Honakoa da ibilbidea: T. Etxebarria, Estaziño, Bariantea, Naiorbe, Santa Kurutz, Usartza, Kalamua, Parlamentua (bertan brindisa), Arrate, Akondia, San Pedro, Usartza, Santa Kurutz, Naiorbe, Asua Erreka, Estaziño eta Klub Deportiboa.

## Asola Berriko Sonia Gomez izan da emakume onena Euskal Herriko txapelketan

Markina Xemeingo Uhagon bolatokian jokatutako azken tiraldian egindako lan bikainari esker, gure herriko bolatokiko ordezkariak lehenengo postua eskuratu zuen emakumezkoen mailan eta bigarren amaitu zuen, txirlo bakarrera, Olatz Rodriguez taldekideak. Ez da txapel hori izan Asola Berrikoek eskuratutako bakarra 30. Euskal Herriko txapelketan, Bittor Ugarte-

buruk nagusien mailakoa jantzi zuelako eta Kepa Rodriguezek infantil mailakoa. Sailkapen orokorrari begira, Elgoibarko San Miguel bolatokiko Xabier Loiola alde handiarekin nagusitu zen sailkapen orokorrean, Markina Xemeingo Lander Odiaga eta Asola Berriko Bittor Ugartebururen aurretik. Hor Sergio Rodriguez izan zen Eibarko bigarrena, 8. postuan.

### Gipuzkoako txapelketa

Gipuzkoako txapelketaren urrezko ezteiekin batera antolatutako lau tiraldi berezietako azkena jokatuko da etzi, Leintz Gatzagako bolatokian. Aurretik Aretxabalatan, Lasturren eta Elgoibarko San Miguelen jokatutakoekin batera, lau bolatoki



Asola Berriko ordezkariak, irabazitako sariekin.

horietan txirlo gehien jotzen dituzten hiru bolarik sari potoloak irabaziko dituzte. Ondoren, bertako elkarteetan lagunarteko babajana egingo dute denboraldia agurtzeko. Tiraldia 11:00etan hasiko da.



## Lau garaipen eskaini zizkion Urbat waterpolo taldeak San Andres patroiarri

Urbat-Urkotronik-eko taldeek asteburu ezinhobea izan zuten San Andres bueltan eta, denboraldiko martxari jarraituta, jokaturako partiduak irabazi zituzten. Senior mailan, gizonezkoen taldeak 15-4 irabazi zion CD Bilbaori Orbeako igerilekuan (zazpi garaipen zazpi jardunalditan), eta emakumezkoenak, Bizkaia sakonean, 5-12 garaitu zuen Lauro aurkaria (taldea guztiz berrituta, eibartarrek sei neurketa bereganatu dituzte, zortzi partidutik). Orbean jokaturako beste bi partiduetan, Urbat 16-2 jubeniletan eta 16-6 infantiletan nagusitu zen. Denboraldi berrian, guztien artean jokaturako 27 partidutik 23 irabazi dituzte eibartarrek.



## Puntuz puntu dihardu aurrera egiten Somos Eibar Eskubaloiak

Ez da gauza erraza eskubaloi partidu bat berdinketarekin amaitzea, baina 1. Nazional Mailan jokatzeko duen Somosek azken hiru neurketetan berdinketarekin amaitu du. Elgoibarraren aurreko astean lortutakoaren ondoren, azken asteburuan ere 28na berdindu zuen Helvetia Anaitasuna sailkapeneko bigarrenarekin lporuan. Meritu handiko emaitza eibartarrena, azken uneraino zein irtengo zen garaile zalantzan egon zelako. Zortzi golekina, Mikel Zuloaga

erabakigarria izan zen oraingoan ere; dena dela, Aitor Garcia bihurtu zen goleatzaile nagusia, 11 golekina. Eibartarrek sailkapeneko erdialdera doaz gerturatzen, gutxinaka bada ere, eta beste hiru taldeekin berdinduta daude, borroka estuan. Bihar aurkari gogorra hartuko dute lporuan, Ereintza Aguaplast, eta hilaren 21ekoa ez da samurragoa izango, Jacar San Antonio izango delako bisitaria. Asko argituko dute sailkapena horko bi emaitzek.



## Azken urteotako denboraldi onena egin du lporua klubak

lporua klubeko gimnastek joan den asteburuan Zaragozan jokatu zen taldekatiko Espainiako Txapelketan eman zioten amaiera denboraldiari. Senior mailako taldeak "ariketa irregularra" egin zuen eta 6. postuan amaitu zuen lehiaketa. Emaitza honekin "zapora gazi-gozaarekin" amaitu zuten "denboraldi zoragarri" bat. Izan ere, irailetik aurrera sei urrezko eta hiru zila-

rrezko domina lortu dituzte hamaika lehiaketatan. Gainera, apirilean brontzezko domina lortu zuten Espainiako Kopako 1. fasean eta estatu mailako bi garaipen lortu zituzten uda aurretik.

Junior mailako taldeak, bestalde, 17. postua lortu zuen asteburuan Espainiako Txapelketan. Juniorrek "ez-ohiko denboraldia" bizi izan dute aurtan. Denboraldi

hasieran ebakuntza egin zioten taldekide bati eta Leioako Eneko Lambeak bete zuen bere baja. Lambearekin emaitza bikainak lortu zituzten, baina ezin izan zuten Espainiako Kopan parte hartu, ez dituztelako talde mistoak onartzen. Bestetik, udazkenetik aurrera jokaturako txapelketan taldearen lana egonkortzea lortu dute zilarrezko hainbat domina irabazita.


**dica**® **eibar**

URRATEGI INTERIORISMO

www.urrategiinteriorismo.com

Arragueta 27  
Telf: 943 857 244

S  
u  
k  
a  
l  
d  
e  
a  
k  
  
d  
i  
s  
e  
i  
n  
u  
a



## Rodrigo eta Jose Rafael Ibañez karateken emaitza paregabeak

Talavera de la Reinan jokaturako **kadete, junior eta 21 urtetik azpiko karate Espainiako txapelketan** Jose Rafael Ibañez eibartarrak 84 kilotik azpiko kumite modalitateko txapela jantzi zuen 21 urtetik azpikoen arloan. Eibarko karatekak nagusitasuna erakutsi zuen borroka guztietan eta, lehenengo txandan 5-1 eta bigarrenen 3-0 irabazi ondoren, finalerdietan 4-0 nagusitu zen eta finalean goitik behera agindu zuen (8-2). Eta hurrengo asteburuan, Valdepeñasen jokaturako Nazional Ligako finaletan, urrezko domina eskuratu zuen senior eta 21 urte-

tik beherakoen mailetan. Jose Rafaelek aurretik ere erakutsi zuen bere maila, Tenerifen 2017an jokaturako munduko txapelketan hirugarren izan zelako. Rodrigo bere anaiarekin txikitant etorri zen gurera eta biak Euskadiko karate selekzioarekin parte hartzen dute lehiaketetan. Rodrigok, esaterako, abenduaren hasieran Madrilin munduko karateka onenak batu zituen Karate Premier Leaguen brontzekoa lortu zuen; hor Rafaelek ezin izan zuen podiumera igo, baina bai hiru borroka irabazi aurkari oso indartsuen aurrean.



Jose Rafael Ibañez, erdian urdinez, urrezko dominarekin.

## Avia Eibarko errugbilariak garaipenetik gertu izan ziren Vigon

Avia Eibar Rugby taldeko jokalariak oso indartsu amaitu zuten **As Lagoas zelaian Vigoren aurka jokaturako partidua**. Neurketa garrantzitsua zen talde bientzat eta, bakoitzak lortutako bi puntuekin, Uribealdea, Gaztedi eta Oviedo sailkapenean atzetik dituzten taldeak urruntzea lortu dute. Neurketa 25nako berdinketarekin amaitu zen, atsedena 14-3 markagailuarekin aldageletara joan eta gero.

Horrek argi islatzen du galiziarrek hobeto heldu ziotela par-

tiduari, eibartarrek defentsa lanean egiten zituzten faltak



aprobetxatuta. Bigarren zatian guztiz irauli zen neurketa eta Gastonen mutilak gehiago izan ziren, partiduko azken jorkaldian lau puntuak gurera ekartzeko modua ere izan baitzuten: Gaizkak ez zuen asmatu entsegua eta ondorengoko transformazioa gauzatzeko. Asteburu honetan bigarren itzuliko lehenengo partidua jokatu dute eibartarrek Donostian, justu aurretik duten Bera Beraren aurka.

## San Andres pala txapelketa domeka goizean erabakiko da

Aurten lehenengo aldiz antolatutako Eibarko San Andres Pala Txapelketak domeka goizean biziko du egun handia, lau bikote onenak hartuko duen jaialdiarekin. Astelena frontoiak hartuko duen jaialdian hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua 10:30ean hasiko da eta, berau amaituta, final handia izango da jokoan. Aurreko astean jokaturako lehen finalerdian David eta Ibanek 30-17 irabazi zieten Bengo

eta Juleni. Beste finalistak Juanma/Zeni eta Osa/Mikel bikoteen arteko norgehiagokatik irtengo da. Antolatzaileek Kirol Patronatoak eta Eibarko Udalak eskaintako laguntza eskertu dute eta baita beste hainbat establezimendutik jasotakoa.



## Retegi Bi-ren agurra domekan Astelenako jaialdian

Profesionalaren mailako pilota jaialdia izango da etzi **arratsaldean** Eibarko Katedralean. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, hiru neurketa hartuko ditu Aspe enpresak antolatutako jaialdiak: lehenengoan Julian Retegi txapeldun handiaren semeak, Retegi Bi-k, agur esango du, Tolosa lagun duela, Pello Etxeberria eta Bikuñak osatutako bikotearen aurka; bigarrenen, binakako txapelketaren barruan, Jaka/Zabaleta gaur egungo bikote liderrak Laso/Albisuren neurtuko ditu indarrak; eta hirugarrenean, promozio binakako txapelketaren barrukoan, Elordi/Oier Etxebarria eta Arteaga/Urretabizkaia bikoteen artekoa jokatu da.



## Zazpi autobus bete dituzte biharko Athletic-Eibar partidua ikustera joateko

lazko autobus kopuru bera bete dute oraingoan ere bihar San Mamesen Athletic-en kontrako partidua ikustera joango diren Eibar FTko zaletuek. Gutxi gorabehera, 500 zaletutik gora izango dira bertan Mendilibarren taldea animatzera joandakoak. Lehenengo autobusak goizeko 11:30ean irtingo dute Ego Gaietik eta, behin arratsaldean sartuta, 16:00etan Untzaga plazatik. Itzulera 21:15ean izango da, Bilbotik. Arratsaldeko 18:30ean hasiko den partidua interes berezia du eibartarrentzat, jaitsierako postuak gero eta gertuago dituztelako jarraian lau partidu galdu eta gero. Gainera, neurketa horretarako baja izango dira Pape Diop (bost txartelen zikloa bete duelako) eta



Orellana (hiru partidutarako zigortu baitute); hori dela-eta, Mendilibarrek hainbat aldaketa egin beharko ditu taldean.

Bestalde, datorren martitzenean, hilaren 17an, Eibarrek Logroñon jokatuko beharko du Kopa lehiaketako lehenengo kanporaketa, 19:00etan hasita, SD Logroñesen aurka. Eta hilaren 20an, barixakuan, Granada hartuko du lporuan, 21:00etan.

### Batzar Orokorra

SD Eibarko akziodunen Batzar Orokorra egin zen atzo Coliseoan. Eibarko Administrazio Kontseiluak 2018-19 denboraldiko kontuak aurkeztu zien akziodunei, euren onarpena jasotzeko. Bertan 2019-20 denboraldirako aurrekontua azaldu zitzairen, klubeko historian izan den aurrekonturik handiena, 52,9 milioi euroekin. Azken denboraldian 11,7 milioi euroko balantze positiboa izan du Eibarrek. Kluba osatzen duten 69 herrialdeetako 11.000 akziodunek, iazko Batzarrean egin bezala, klubak jarritako sistema telematikoa izan zuten eskura era digitalean boza emateko.



## Arima Galduek-ek jugger liga hasi zuen Zaragozan

Gure herriko jugger taldeak Internucleos Ligaren lehenengo jardunaldia jokatu zuten aurreko domekan Zaragozan. Bi talderekin aurkeztu ziren eta biek ere zortzi partidu gogorri egin behar izan zieten aurre. A taldeari euren jokatzeko teknikan izandako aurrerapenak ondo nabaritu zitzaizkien eta B taldean hasiberri diren lau jokalarik debutatu zuten partidu ofizial batean. Otsailaren 16an jokatuko dute liga horretako bigarren jardunaldia.

## Foball-zaletu txapelketak 10. jardunaldia hartuko du asteburuan

Bi asteburutan partidurik jokatu gabe egon eta gero, Kirolbet foball-zaletuaren liga txapelketak bere bideari helduko dio berriro bihar. Orain arte jokaturako bederatzita jardunaldietan bi taldek jokatuko dute aurrera: Garajes Garciak 27 puntu ditu, partidu guztiak irabazita; eta Bar Txokok jarraitzen dio, 24rekin, partidu bakarrean amore

emanda. Euren atzetik daude La Jara (20 puntu), Durango eta Ipur Sagardotegia (17) eta Azkena Adahi eta Feredu Buenos Aires (15). Une honetan Bar Txoko da goleatzaile nagusia, 50 golekin, eta gol gutxien jaso dituen (bost bakarrik). Bihar eta etziko partidua asteburuko agendan ikusi ditzakezue.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

Athletic - EIBAR (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen 2. Maila

Athletic B - EIBAR (etz, 13:00)

#### 3. Maila

Deusto - VITORIA (etz, 11:15)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B - Anaitasuna (bihar, 18:00)

#### Ohorezko Erregional Maila

EIBAR URKO - Elgoibar (etz, 15:30)

#### 1. Erregionala

URKI - Ikasberri (bihar, 18:00)

EIBARTARRAK (atsedena)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

EIBAR - Mutilvera (etz, 12:30)

#### Euskal Liga

Zarautz - EIBAR B (bihar, 15:45)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

Danena - EIBAR (bihar, 12:30)

### FOBALL-ZALETUA

Slow XOK - Feredu B. Aires (bihar, 09:00)

Garajes Garcia - JMR (bihar, 09:00)

Chic - Los Paisanos (bihar, 10:30)

Durango - Bar Txoko (bihar, 12:00)

Ipur Sagardo. - Illunpe Arreto (etz, 09:00)

La Jara - Azkena Adahi (etz, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

Ereintza - SOMOS (bihar, 19:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

MECALBE - Munttarpe (etz, 11:45)

#### Gipuzkoako 1. Maila

HARITZA - Ormaiztegi (bihar, 16:30)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

Bera Bera - AVIA (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Universitario Bilbao - AVIA (bihar, 16:00)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

AVIA - Contubi Oiarso (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

CW 9802 - URBAT (gaur, 20:50)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Larraina (bihar, 14:30)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN



# Udalbatzak Euskararen Ordenantza Berrituaren aldeko adierazpen publikoa egin zuen

Euskararen Eguna ospatzeko antolatu zuten egitaraua agurtzeko, Eibarko Udalak apirilaren 29an onartutako Euskararen Ordenantza Berrituaren aldeko udalbatzaren adierazpen publikoa egin zuen udaletxeko pleno aretoan. 2014ko abenduaren 3an onartu zuen Udalak lehenengo euskararen ordenantza, baina Udal legerik gabe, eta momentu hartako Gobernu Delegazioak artikuluko batzuk errekurrituta, epaitegitik pasatu ondoren Ordenantza eskas samarra geratu zela eman dute aditzera. Oraingoan, baina, Udal legea onartuta, arazorik gabe sartu da indarrean Eibarko Udalak onetsitako ordenantza.

**E**ibarren euskararen erabilera normala berreskuratzea" da ordenantzaren helburua. Udaletik adierazi dutenez, "gaur egun gaztelania normaltasun osoz erabiltzen da hiri honetako edozein esparrutan, eta ordenantza honen bidez lortu nahi dugu euskara ere halaxe erabili ahal izatea Eibarren". Araubide honen bitartez, eibartarren hizkuntza eskubideak bermatu nahi direla diote. Izan ere, legeak honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen dizkie Euskal Herriko herritarrei: administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz; irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea; aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea; lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea; eta edozein bilkuran euskaraz mintzatzeko eskubidea. Legearen arabera, botere publikoek ziurtatuko dute eskubide horien erabilera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean, "eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten. Ondorioz, Eibarko Udalari dagokio eskubide horiek betetzen direla bermatzea".

**BERAZ, ETA ESKUBIDE HORIEK BETETZE ALDERA, HONELA JOKATUKO DU UDALAK HERRITARREKIN:**

## - Lehen hitza eta harrera

Euskara izango da lehen hitza telefonoan eta aurrez aurreko harremanetan.

## - Inprimakiak eta komunikazio idatziak

Udalak eta haren menpeko edozein erakundek herritarrei bidaltzen dizkieten komunikazio, ziurtagiri, gutun eta jakinarazpen idatzi guztiak hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira.

## - Bilerak eta jarduera publikoa

Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Hori horrela, herritarrek bileretan euskaraz egiteko eskubidea dutela adieraziko dute udal langileek eta zinegotziek.

**Eibar**

**EUSKALDUNAGOA**

**gogoan**







Eibarko Udaleko ordezkari politikoek euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dute ekitaldi publikoetan, Udalaren izenean ari direnean. Ekintza eta entzule motagatik, gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan eta bileretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenean eta laburpenetan.

## HERRITAR MULTZO EUSKALDUNARENTZAKO JARDUERAK EUSKARAZ IZANGO DIRA

### – Jakinarazpenak

Ediktuek, ordenantzak, erregelamenduak eta beste edozein motatako erabakiak ele bietan argitaratuko dira.

### – Abisuak, argitalpenak eta harremanak hedabideekin

Herritarrentzako iragarkiak, diptikoak eta argitalpenak ele bietan argitaratuko dira. Baina euskaraz izango dira herritar multzo euskaldunarentzako argitalpenak.

Prentsa-oharrak ele bietan egingo dira eta Udalaren webgunea ele bietan egongo da.

Aldizkari, gida eta berripaperak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Gaiaren eta hartzailearen arabera, beste aukera batzuk aztertuko dira, betiere hizkuntza bien erabilerearen arteko oreka mantenduta. Hala dagokionean, beste hizkuntza batzuk erabili ahal izango dira.

Ordenantzak derrigortasun gehienak Udalari berari ezartzen badizkio ere, Eibarko Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarte eta erakundeengan ere eragina izango du, batez ere euren jarduerak jendaurrean egiten dituztenean: *“Udalaren dirulaguntza jasotzen duten elkarte eta entitateek zein espazio publikoak, udal instalazioak eta materialak erabiltzeko eskaera egiten dutenek, jendaurreko ekitaldiak burutzen dituztenean, herritarrei orohar ematen zaizkien azalpenak, bai ahoz, bai idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte. Herritar multzo euskal hiztunari zuzenduta daudenean, euskara hutsean egin daitezke. Entzule motagatik gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenetan eta laburpenetan. Entitateek Euskara Zerbitzura jo ahal izango dute testuak itzultzeko eta zuzentzeko, beti ere behar diren baldintzak betez gero”.*

## Egunean Behin lehiaketarekin ospatu zuten eguna Armeria Eskolan

Euskeraren Egunaren aitzakiarekin, Armeria Eskolan Egunean Behin, CodeSyntax enpresaren eskutik sortutako jokoaren inguruko lehiaketa egin zuten abenduaren 3an. Alina Ivanek eta Kike Amunarrizek gidatutako saioan ehun ikasle inguruk hartu zuten parte eta irabazlea Aitor Umerez izan zen. Zorionak!







# Euskeraren Egun berezia

Jai giroan bizi izan zen Euskeraren Eguna abenduaren 3an, dantza ikuskizunak tarteko. Eibarko Euskalgintzak eta Eibarren Akebai plataformak antolatuta, herriko eskoletako ikasleek hiru dantza-emanaldi egin zituzten egunean zehar. Goizean goizetik HHko haur, DBHko gazte eta jubilatuekin hasi eta, iluntzera bitartean, polkak, pitx (Alunelul) dantzak eta beste kantu batzuekin prestatutako koreografiak eskaini zituzten herriko ikas-

tetxe guztietako ikasleek, Untzaga eta erdialdeko kaleak musikaz beteta. Gainera, Kaxakoen laguntzarekin, kalejira egin zen Untzagaraino. Plazan egin ziren azken dantzak eta, gero, herritarrek euskeraren sarea irudikatu zuten, kolore ezberdinetako hari-matazekin. Euskeraren Egunari amaiera emateko, 19:00etan Euskeraren Ordenantza Berriaren aldeko udalbatzaren adierazpen publikoa egin zen udaletxeko pleno aretoan.



**EGUNEAN ZEHAR EGINDAKO ARGAZKIAK ETA DANTZA EMANALDIETAN GRABATUTAKO BIDEOAK GURE MEDIATEKAN ([etakitto.eus/mediateka](http://etakitto.eus/mediateka)) IKUS DITZAKEZUE.**



2019/XII/3



jostorratz eta haria  
saretuz herria







URKIZU




SAN ANDRES



ALDATZE



ITURBURU




HAUR HEZKUNTZA



UNI





AEK



EUSLIDERRAK



LA SALLE AZITAIN



AMAÑA



ARRATEKO ANDRA MARI



LA SALLE ISASI





**JON ZELESTINO**  
(Broken Brothers Brass Band)

## “Gure musikak festarako giroa sortzen du”

New Orleanseko brass band musika garaikidearen kale eta jai doinuak eskainiko ditu Broken Brothers Brass Band taldeak domekan, 19:30ean, Portalean. 13 urteko ibilbide arrakastatsua egin du talde nafarrak eta, kalea utzita, areto barruan joko du publikoa funk, gospel eta jazz doinuetan murgiltzeko.

**- Nola entzuten dira New Orleanseko doinuak Euskal Herrian eta euskeraz?**

Entzuteko erraza den eta dantzara eramaten zaituen musika da. Musika hori entzuten duen jendeak erreferentzia argiak ditu eta garbi ikusten du zein talde mota garen, baina entzuten ez duenak soinua freskoa aurkitzen du. Gure musikak gopelarekin, funkarekin... harremana du eta festarako giroa sortzen du.

**- Brass band musika kalean entzun ohi da, kalejiran. Portalean, ordea, aretoan joko duzue. Zer moduz moldatzen zarete?**

Geroz eta hobeago. Kalean jotzen dugunean jendearen erantzuna oso zuzena da eta inprobisazio gehiago dago. Aretoran, bestetik, zorrotzagoak gara. Udazkenenean hainbat aretotan jo izan dugu, eta itsusia da nik esatea, baina taldea sendo dagoela esango nuke.

**- Jai handia sortzen da zuen kontzertuetan?**

Bai. Musika beltzak komunitate zentzua du. Eserita entzuteko musika gozoa da, baina dantzan egin eta abesteko aproposa da baita ere.

**- Euskal Herritarrek izanik, zuen ukitu pertsonala eman diezue New Orleanseko doinuei?**

Baietz uste dut. Estiloa asko landu dugu eta gure abestiak sortu ditugu, eta hori musikan eta berbetan igartzen da. New Orleanseko abestiek hango gauzei buruz egiten dute berba,

beraz, guretzat ez du zentzurik ingelesez egitea. Bestetik, talde bezala gure ahots propioa dugu.

**- New Orleansen brass bandak dituzte eta hemen txarangak ditugu. Antzekotasunak daude bi mundu horien artean?**

Bai, duda barik. Gizartearen behar bati egiten diote men. Brass band berbak erabiltzen ditugu, musika aldetik gure erreferentzia hori delako, baina funtzioa bera da: kalean jai sortzea elektrizitaterik gabe. Lehengo bandetatik eratorritako talde txikiak dira txarangak, dantzarako musika ematen dutenak, eta brass band bat hori da New Orleansen.

**- Berri Txarrak taldeak uztailean Kobetamendin eskaini zuen kontzertuan eurekin jo zenuten, euren agur biran. Nolako esperientzia izan zen?**

Oso polita, hunkigarria. Guretzat ohorea izan zen miresten duzun musika talde batek horrelako aitortza egitea. Eskertuta gaude.

**- Berri Txarrak amaitu du bere ibilbidea, baina zuek marxia betean jarraitzen duzue. Grabazio estudioetik berriz pasatzeko asmoa duzue?**

Bai. Gauza batzuk grabatu ditugu eta laster aterako direla pentsatzen dut. Iruñerriko eta Nafarroako taldeen bertsioak grabatu ditugu. Ez da disko formatuan irtengo, baina laster ikusiko du argia.


## Eibartar biren argazkiak saritu dituzte Zaldibarren

Zaldibarko Ilargi Argazki Taldeak antolatutako argazki lehiaketan eibartar biren lanak saritu dituzte: 29. edizioko sari nagusia Indalzeio Ojanguren lehiaketako azken edizioko irabazleak, Bergaran bizi den Jose Agustin Gurruchagak eraman du, “Auditorio especial” izenburuko argazkiarekin. Eta herriko lan onenari saria, berriz, Zaldibarren bizi den Joseba Arginzonizek eskuratu du, “Bide galduak” izenburuko argazkiarekin.



### Irigoienen argazkiak Topalekun

Gaur arratsaldean, 19:30ean inauguratuko du Jose Luis Irigoienek “Neurri handiak” izeneko argazki erakusketa Topalekuan. Abenduaren 21era arte egongo da ikusgai, egunero 19:00etatik 21:00etara.



Gurrutxaga



Arginzoniz





## Zeramika Eskolako ikasleen jaiotza ipini dute Portalean

Aurten ere Eibarko Udal Zeramika Eskolakoek egindako jaiotza ipini dute Portaleko sarrera apaintzen. Zeramikarekin egindako irudi guztiak Esther Galarzaren 26 ikasleek egin dituzte eta, aurten lehen aldiz, Eskolako guztiek hartu dute parte.



## Musika Eskolako ikasleak Arrasateko Akordeoi Jaialdian

XXXII. Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia egin zen abenduaren 7an Arrasaten eta aurten ere han egon ziren Eibarko Musika eskolakoak, jaialdian parte hartzen. Marisol Arrillagaren ikasleak bakarleri mailetan ez ezik Ganbera Musika mailetan ere aritu ziren, bikain. Irakaslearen berbetan, "jaialdiaren atzean ikasleek egindako lana dago, dena prestatzen orduak eta egunak eman dituzte eta".

## Argazkigintza kurtsoa egin dutenen erakusketa Deporren

Udalak urtero antolatzen duen argazkigintza digitalaren inguruko ikastaroa amaitu da eta, beste batzuetan bezala, oraingoan ere ikasleek lanak ikusteko aukera egongo da. Klub Deportiboko Argazki Taldeko Juan Antonio Palacios eta Jose Valde-

rey irakasle izan dutenen argazkiak abenduaren amaiera arte egongo dira ikusgai, Depor tabernan. Erakusketa martitzenetik zapatuta bitartean (jai-egunetan izan ezik) zabalduko dute, 17:30etik 21:30era.



## Ibon Muñoaren liburu-aurkezpena

Ateramiñe argialetxeak Ibon Muñoa Arizmendiarieta Eibartar presoaren 6. liburua editatu du. "Gure memoria, gure historia" Durangoko azokan egon da salgai eta datorren asteen Eibarren aurkeztuko da. Toribio Etxebarria kalean burutuko da aurkezpena. Jokin Urain idazleak literatura espetxean gaiaz jardungo du eta bertso musikatuak ere izango dira.



## Argazki erakusketa Portalea tabernan

Egoiziak antolatutako "Plastikorik gabe, aurrera" argazki lehiaketara aurkeztu zituzten lanekin erakusketa prestatu dute. Abenduaren amaiera arte egongo da ikusteko moduan, Portalea tabernan.



## Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Musika Bandak domekan emango du urte honetako azken kontzertua, 12:30ean Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barba zuzendari dutela, pelikuletako musikarekin osatutako egitaraua eskainiko dute: "Beyond The Sea" (C. Trenet & A. lasry), "Highlights From Hook" (J. Williams), "The Incredibles" (M. Giacchino), "Mary Poppins" (R. Sherman) eta "Chicken Run" (J. Powell).



## “Intocables” taularatuko dute gaur iluntzean Coliseoan

Ados Teatroa eta Pentacion Espectaculos antzerki konpainien eskutik “Intocables” lana hartuko du Coliseo antzokiak gaur iluntzean, 20:30ean. Garbi Losadak zuzendutako antzezlanean Roberto Alvarez, Jimmy Roca, Begoña Maestre eta Iker Lastra aktoreek egiten dute lan, bazterketari buruzko istorioa kontatzen da, eta kartzelatik atera berri den gazte marjinal bat kontratatzen du bera zaintzeko. Elkarrekin nahastuko dituzte Vivaldi eta rap musika, hizkera dotorea eta kaleko jargoia, jantzi garestiak eta txandal prakak. Azkenean elkar ulertzea lortzen duten bi mundu desberdin. Bidean, lan akordio batetik haratago doan harremana ehuntzen dute biek, lagun banaezinak bihurtzeraino. Eta bien arteko aurkakotasunetik, haien elkarbizitza xeble horretatik, modu naturalean sortzen dira samurtasuna eta komedia. “In-



tocables” izenburuak Indiako kasta baxueneko kideei, inork geru nahi ez dituen horiei egiten die erreferentzia. Hain zuzen ere hori da bi pertsonaiek komunean duten gauza bakarra: baztertuak direla (nahiz eta arrazoi ezberdinengatik izan). Sarrerak 20 euro balio du (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

## Klub Deportiboko argazkilarien erakusketa zabalduko dute gaur

Gaur 19:00etan zabalduko dute Portalean Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen lanen erakusketa. “Udazkena” izenburuko erakusketan parte hartuzera animatu direnak Oscar Baglietto, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Bakarne Elejalde, Jose Ignacio de Castro, Juan Antonio Palacios, Pedro Arriola, Jose Valderrey, Enrique Lorenzo, Zigor Astigarraga, Fernando Retola-



za, Juan Manuel Lucena, Enrique Albistegi, Virginia Arakistain, Einer Rodriguez, Mikel Urionaguena, Federico Cuenca, Silvia Tardio, Estrella Tardio, Josean Carbajo, Fernando Solana, Valentin Cabanzon, Nemesio Gomez, Beatriz Alcorta eta Fernando Alonso dira. Urtarrilaren 12ra arte egongo da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

## Vienatik pozarren itzuli da Laskurain

Jose Miguel Laskurain Vienan egon da, orkestra zuzendarientzat han egin berri duten nazioarteko topaketan parte hartzen. Han emandako egunetan hainbat hitzaldi eta erakusketatan parte hartzeko aukera izan zuen eibartarrak eta, gainera, Wiener Possymphonie ganbera orkestra, Matei Ioachimescu flautista errumaniarra solista zuela zuzentzeko aukera ere izan zuen. Esperientziarekin pozarren itzuli da Las-



kurain eta datozen egunotarako emandak prestatzeko lanean dihardu orain. Izan ere, berak zuzentzen duen Debabarreneko Orfeoiarekin Gabonetako bi kontzertu emango ditu abenduaren 22an, Eibarko eta Elgoibarko zaharren egoitzetan.

## Larrua lantzeko ikastaroa egingo da martitzenean

Arima Cool Tour elkarteak larrua lantzeko tailerra eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak martitzenean (abenduaren 17an), arratsaldeko 18:30ean. Saioan sormena erabiliz larruzko produktuak egiteko aukera eskainiko dute, norberaren gustuen arabera pertsonalizatuz. Antolatzaileen berbetan, “ez da beharrezkoa eskulanak egiten trebeak izatea, ondo pasatzeko gogoia besterik ez da behar”. Izena emateko ...eta kitto!-tik pasa daiteke (Urkizu, 11 solairuartera) edo telefonoz deitu (943200918). Izen-emateak 3 euro balio du.







## Blues Hotsak 2019 SORALUZEN


Errabal kultur elkarteak antolatuta, Udalaren laguntzarekin, gaur, bihar eta etzi jazz-blues jaialdia izango da Soraluzen, egunero kontzertu banarekin. Gaur gaueko 22:00etan Shirley Davis & The Silverbacks taldeak lehenengo kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Bihar arratsaldeko 20:00etan The Allnighters taldeak joko du Zentroan. Eta domekan, hirugarren kontzertuan, eguerdiko 13:00etan Jon Gurrutxaga & Urbil Artola izango dira Zubi Nagusian. Errabal kultur elkartekoek orain dela urte batzuk Zentroaren inguruan, normalean Gaztetxean, urtero egiten ziren kontzertuak berreskuratu nahi dituzte horrela, "jazza, bluesa eta musika beltza ezagutarazi eta gozatzeko aukera eskainiz".



## Rayden rap abeslaria ERMUAN

Gaur 22:15etik aurrera Rayden (David Martinez, 1985) rap abeslariak jardungo du Ermua Antzokian. Abeslari madrildarra Espainiako eta Munduko txapelkun izan zen La Batalla de los Gallos lehiaketaren 2006ko edizioan eta, harrezkero, bakarkako ibilbidea eraiki du. Bost disko ditu jada kalean.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Secundina Fariñas Guede. 92 urte. 2019-XI-20.
- Justo Alejandro Bello Benes. 88 urte. 2019-XI-22.
- Jesus Hernando Gordo. 75 urte. 2019-XI-26.
- Eloisa Narbaiza Narbaiza. 102 urte. 2019-XI-28.
- Florencio Berriozabalgoitia Bilbao. 95 urte. 2019-XI-28.
- Sabino Agirregabiria Azpiazu. 91 urte. 2019-XI-29.
- Crispulo Molina Huete. 74 urte. 2019-XI-30.
- Eusebio Molina Poveda. 86 urte. 2019-XII-1.
- Arsenio Baz Sanchez. 74 urte. 2019-XII-3.
- Juan Pedro Sanz Gutierrez. 58 urte. 2019-XII-3.
- Basilia Flores Perez. 85 urte. 2019-XII-4.
- Miren Aulestiarte Ugartetxea. 83 urte. 2019-XII-6.
- Felisa Garai Aranzeta. 95 urte. 2019-XII-6.
- Felix Iruretagoiena Uranga. 90 urte. 2019-XII-8.
- M<sup>a</sup> Carmen Perez Suarez. 61 urte. 2019-XII-9.
- Javier Perez Sebastian. 82 urte. 2019-XII-11.

## jaiotakoak

- Walid Leblane Jarmouni. 2019-XI-22.
- Raian Leguizamon Mercedes. 2019-XI-28.
- Achraf Rami. 2019-XI-28.
- Sara Etxaniz Agirregomezkorta. 2019-XII-9.
- Hidaya Rahali. 2019-XII-9.

## SUDOKUA

### AURREKOAREN EMATZA

5	1	7	8	3	9	6	2	4
8	2	9	4	5	6	3	1	7
6	3	4	7	2	1	8	9	5
4	5	3	9	8	2	1	7	6
9	7	1	3	6	4	2	5	8
2	6	8	5	1	7	4	3	9
3	8	6	2	7	5	9	4	1
1	9	5	6	4	3	7	8	2
7	4	2	1	9	8	5	6	3

	7		6				8	
	3	2	9					4
				1				
2		8			9		6	
		7	1		5	8		
	9		8			3		1
				7				
8					6	1	3	
	4				1		2	

## farmaziak

- Barixakua 13  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 14  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 15  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Astelehena 16  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 17  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguaztena 18  
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguena 19  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 20  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-  
 Zulueta (San Agustin, 5)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20



## Barixakua 13

### JOSTAILU BILKETA

**17:00/19:00.** Gabonetako jostailu bilketa solidarioa, Eibar eta Ermuko Gazte Sozialisten eskutik eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean. Untzagan.

### LIBURU AZOKA

**17:00/20:00.** Eibar Sahara Elkartarena. Untzagan.

### ZINE FORUMA

**19:00.** "La estacion de las mujeres" (Leena Yadav) filmari buruzkoa, Pagatxa elkartearen eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Portalean.

### DANTZA

**19:00.** "GiraBIRAKAlejira" ikuskizuna. Anbulategi parean hasita, Untzagaraino kalejira egingo dute. Gero, emanaldia. Untzagan.

### INAUGURAZIOA

**19:30.** "Eskema", Ion Fiz diseinatzailearen erakusketa. Armagintzaren Museoa.

### INAUGURAZIOA

**19:30.** "Neurri handiak", Jose Luis Irigoienaren argazki erakusketa. Topalekuan.

### ANTZERKIA

**20:30.** "Intocables" (Ados Teatrao-Pentacion). 20 euro (14 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

## Zapatua 14

### ALGARAKLOWN

**10:00/14:00.** Algaraklown ospitaleko pailazoen elkartearen egutegia saltzeko postua. Untzagan.

### BIGARREN ESKUKO AZOKA

**10:00/14:00.** Bigarren Eskuko Azoka. Untzagan.

### LIBURU AZOKA

**10:00/20:00.** Eibar Sahara Elkartarena. Untzagan.

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Frontoian.

### UMEENDAKO TAILERRA

**17:30.** Aurpegiak margotzeko. Doan. El Corte Inglesean (Galtzagorriren Etxean, Jostailuak S1).

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia HH-ko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### HITZALDIA

**18:00.** "Zaintza eta etxeko etxeko langileen eskubideak". Hizlaria: Liz Quintana abokatu, Etxekotu Gabeko Emakume Langileak taldeko kidea. Sarrera librea. Portalean.

## Domeka 15

### LIBURU AZOKA

**10:00/14:00.** Eibar Sahara Elkartarena. Untzagan.

### TAILERRA

**11:00.** Gabonetako apaingarriak egiteko. Doan (aurretik izena eman behar da). Armagintzaren Museoa.

### KONTZERTUA

**12:30.** Eibarko Musika Banda. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia HH-ko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45.** Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

### KONTZERTUA

**19:30.** Broken Brothers Brass Band taldea. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.

## Astelehena 16

### ELKARRETARATZEA

**12:00.** Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

## Martitzena 17

### IKASTEN

**10:00.** "Zinema kontatzen duen historia II" hitzaldia, Igor Barrenetxearen eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### TAILERRA

**18:30.** Larrua lantzen ikasteko, Arima Cool Tour elkartearen eskutik. ...eta kitto!-k antolatuta. 3 euro. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

## Eguaztena 18

### KONTZERTUA

**19:00.** J.B. Gisasola Musika Eskolako Gabonetakoa. 3 euro. Coliseoan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

## Eguena 19

### ERREGE EGUNERAKO TXARTELAK

**09:00.** Errege egunean kiroldegian egingo den dantza ikuskizunerako banatuko dituzte. Kultura sailean (Portalean)).

### IKASTEN

**10:00.** "Zibilizazio krisia eta erantzun iraunkorrak" hitzaldia, Roberto Bermejoren eskutik. Armeria Eskolan.

## zineaColiseoan

### (1 ARETOAN)

**14an: 17:00, 19:45, 22:30**

**15ean: 17:00, 20:00**

**16an: 20:30**

### "Legado en los huesos"

Zuzendaria: Fernando Gonzalez



### (2 ARETOAN)

**14an: 19:45, 22:30**

**15ean: 20:00**

**16an: 20:30**

### "Last Christmas"

Zuzendaria: Paul Feig



### (ANTZOKIAN)

**14an: 17:00, 19:45, 22:30**

**15ean: 17:00, 20:00**

**16an: 20:30**

### "Jumanji. Siguiete nivel"

Zuzendaria: Jake Kasdan



### (2 ARETOAN)

**14an: 17:00**

**15ean: 17:00**

### "Frozen II"

Zuzendaria: Chris Buck





**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, TELMO!,  
hillaren 3an 7 urte  
bete zenduaz-en-eta.  
Segi oin arte bezain  
alái. Etxekuen partez.



Zorionak, JANIRE,  
hillaren 7xan 11 urte  
bete zenduaz-en-eta.  
Musu haundi bat  
famelixaren partez.




Zorionak, MIREN,  
eguaztenian 8 urte bete  
zenduaz-en-eta. Patxo  
haundi bat etxeko  
guztion partez.



Zorionak, ENEKO,  
domekan 15 urte  
beteko dozuzelako.  
Famelixakuen eta  
lagunen partez.



Zorionak, MALEN,  
gaur 3 urte betetzen  
dozuz-eta!! Musu  
haundi bat etxekuen  
partez.



Zorionak, MARKEL,  
hillaren 2xan urtetxua  
bete zenduan-eta.  
Famelixa guztiaren  
partez.



Zorionak, PEIO,  
hillaren 6xan 2 urtetxo  
egin zenduaz-en-eta.  
Poz-pozik ospatu  
genduan famelixako  
danok.



Zorionak, AITOR,  
zorionak zuri!!,  
hillaren 6xan 5 urte  
bete zenduezen-eta.  
Patxo potolua  
etxekuen partez.



Zorionak, NOAH,  
hillaren 11n 3 urte  
beteko dozuz-eta.  
Musu haundi bat tio  
lñigo eta amama  
Arantxaren partez.



Zorionak, JON,  
hillaren 7xan urtetxua  
bete zenduan-eta.  
Patxo bat famelixaren  
eta, batez be, amama  
Kontxiren partez.



Zorionak, MARTIN!!,  
hillaren 7xan 10 urte  
bete zenduaz-en-eta.  
Musu haundi bat  
famelixaren eta, batez  
be, Helenaren partez.



Zorionak, LUKA!,  
domekan 5 urte  
beteko dozuz-eta.  
Patxo haundi bat  
famelixa guztiaren  
partez.




Zorionak, MAIDER,  
gaur 2 urte egiten  
dozuz-eta!! Musu  
haundi bat famelixa  
guztiaren partez.  
Asko maite zaittugu.




Zorionak, GORKA,  
gaur 4 urtetxo  
betetzen dozuz-eta.  
Musu haundi bat  
famelixa guztiaren  
partez. Maite zaittugu.



Zorionak, GAIZKA,  
astelehenian 10 urte  
bete zenduaz-en-eta.  
Musu bat famelixaren  
eta, batez be, zure  
arrebá Alaitzen partez.



Zorionak, IRAULTZ,  
hillaren 8xan 3 urte  
bete zenduaz-en-eta.  
Musu bat lagunen  
eta, batez be, Suar  
eta Aiurren partez.



Zorionaaaakk,  
NAHIA!!! Hillaren 4an  
urtetxua bete zenduan-  
eta. Patxo potolo-  
potolua aita eta  
amatxoren partez!!



Zorionak, NAIA  
Navarrete, hillaren  
18xan 8 urte beteko  
dozuz-eta. Musu  
haundi bat amama  
eta aitxiren partez.



Zure urtebetetzian,  
MADDI, zu bezain  
egun zoragarria opa  
detsugu. Patxo potolo  
bat famelixa guztiaren  
partez. Segi jator.




Zorionak, NORA.  
gaur 7 urte betetzen  
dozuz-eta. Musu bat  
famelixa guztiaren  
eta, batez be, Miren  
zure ahiztaren partez.




JULE etxeko txikiak  
4 urte bete zittuan  
atzo. Patxo potolua  
guraso eta amama-  
aitxiren partez. Segi  
alái eta dantzariña!




Zorionak, MIREN,  
hillaren 17xan 7 urte  
beteko dozuz-eta.  
Musu haundi bat  
amatxo eta aitaoren  
partez.



Zorionak, PAUL!!  
Etxeko dantzariak  
4 urte egin zittuan  
hillaren 6an!! Patxo  
potolo bat Manex  
eta Beraren partez.




Zure 11. urtebetetzian  
hamaika aldiz gehiago  
maite zaittugu, PATXI!!  
Patxo potolua Jone,  
aita eta amaren  
partez.



Zorionak, gure etxeko  
MARTINTXOK zapatu  
honetan 3 urtetxo  
beteko dittu-eta.  
Musu haundi bat  
etxekuen partez.




Zorionak, BIHOTZ,  
hillaren 7xan 3 urte  
bete zenduaz-en-eta.  
Musu bat famelixaren  
eta, batez be, Amets  
eta Hodeiren partez.




Zorionak, MIKEL,  
txapeldun! Atzo 4 urte  
egin zenduaz-en, beti  
bezain alái. Asko  
maite zaittugu!  
Etxekuen partez.



Zorionak, UR Agote  
Gorostizaga, hillaren  
8xan 10 urte bete  
zenduazelako.  
Musu haundi bat  
famelixaren partez.



Zorionak, MALEN  
Urizar Arruti, hillaren  
15ian 11 urte  
egingo dozuzelako.  
Musu haundi bat  
famelixaren partez.



Zorionak, HEGO!  
Gaur 3 urte betetzen  
dozuz, mutil haundi!  
Musu potolo bat  
Markel eta etxekuen  
partez!



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai R. Galdos kalean. 3 logela eta 2 komun. 90 m<sup>2</sup>. Terraza eta dena kanpora begira. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Tel. 671-258740.

### 1.2. Errentan

- Pisua alogagai Eibar erdialdean. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Berehala sartzeko moduan. Tel. 688-667994.
- Hiru lagun alokairuan hartzeko etxe bila gabiltza. Arduratsuk eta diru sarrera finkoekin. Tel. 656-741187.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-892991 eta 674-377765.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Bulegoa salgai Bidebarrieta 27ko 2. solairuan. 30 m<sup>2</sup>. Kanpora begira. Zerbitzu orokorrekin. Prezioa adosteko. Tel. 607-658356.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakume eskaintzen da 11:00etatik 17:00etara lan egiteko (zaintza, garbiketa...). Tel. 603-874953.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 632-761979.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, garbiketarako eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere). Jaurilaritzako ziurtagiriek. Tel. 631-067165.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-426543.
- Mutila eskaintzen da eraikuntza eta margotze lanetarako. Tel. 642-505630.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 627-892991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-422256.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-389567.

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 612-221327.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098382.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-642320.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-434004.

- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 617-610706. Isabel.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 658-273486.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanetarako eta sukaldari moduan. Tel. 641-693067.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-651876.

- Mutil arduratsua eskaintzen da pintore edo iturgin moduan eta eraikuntzan edo nekazaritzan jarduteko. Esperientzia. Tel. 667-204456 eta vallecillo12@gmail.com

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-915336.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-810065.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-837026.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 681-013032.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-700803.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-862059.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-724060.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxeak garbitzeko eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 602-490595.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxeak garbitzeko eta gaez nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 603-346659.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-329213.

- Mutila eskaintzen da pintore-laguntzaile moduan, eraikuntza edo arotz-lanetarako eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 697-666992.

## 4.2. Langile bila

- Furgoneta duen autonomia behar da buzoietan banaketa-lanak egiteko astean behin. Bidali eskaintza: marisol.etakitto@gmail.com

- Basondartza Eskolarako 2019-20 ikasturterako bidelagun bila gabiltza. Bidali curriculum: basondartza@gmail.com

- Emakumea behar da eguneroko bi orduz nagusia zaintzeko. Tel. 653-723095. Arratsaldean deitu.

- Elgoibarko enpresak txofer eta biltegi lanetarako pertsona behar du. Bidali curriculum: gmiereb@gmail.com

- Langilea behar da estetika zentro baterako. Tel. 690-201160.

- Grafiteroa behar da etxea apaintzeko. Tel. 689-232882.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskeraerak

- Ekonomia irakaslea behar dut, Zuzenbideko 1. Mailarako. Tel. 685-752000.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta modulorako klase partikularak ematen dira. Tel. 678-937827. Patricia.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Autoaren atzekaldeko bolan lotzen den bizikleta-eramatekoa salgai. Lekua lau bizikletarentzako. 175 euro. Tel. 646-293311.

- Binilo diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

- Play Station 4 salgai, bi mandorekin. Oso gutxi erabilia. 200 euro. Tel. 696-817026.

- 80 zentimetroko ohe-kabia salgai, koltxo eta guzti. 100 euro. Tel. 695-708100.

- Gitarra elektrikoak salgai. Tel. 605-711422.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



# Deskontu paregabeak Eco Move Days

Hilabete honetan bakarrik



## 8.000€-ra

arteko deskontuarekin

Banco Cetelem S.A.U.rekin finantzatzuz gero

Zorioneko zaude, hilabete honetan Hyundairen **Eco Move Days** esku-eskura jarriko dizugu-eta. Zatoz eta aldatu lehengo autoa Hyundai berri ekologikoago baten truke, eta eraman ezazu **8.000 €-ra arteko deskontuarekin**. Zeren zain zaude? Zatoz hurbilen duzun kontzesionariora, eta aldatu, Hyundairen Eco Move Days-ekin. Hilabete honetan bakarrik.

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**GRUPO EASO MOTOR**

**ELGOIBAR**  
Olaso Polig., 17  
943 74 14 80

Erakusketa berria  
**ARRASATE**  
San Andres Auzoa, 6  
943 79 70 06

**HYUNDAI**

**5** km **MUGARIK GABEKO BERMEA**

Hyundai i30 gama: CO<sub>2</sub>-emisioak (gr/km): 118-153. Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,5-6,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 96-139, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak. Hyundai Tucson gama: CO<sub>2</sub>-emisioak (gr/km): 143-198. Kontsumo mistoa (l/100 km): 5,5-8,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 113-173, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak.

Tucson 1.6 GDI 96,4 kW (131 ZP) 4x2 Edizio Bereziari aplikatuko zaio deskontua. 8.000 €-ra arteko deskontua izango du ibilgailuaren prezioan, BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena barne. Hyundaira Aldaketa Plana aplikatu daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabetearekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Ez dira sartzen finantzaketari lotutako gastuak (Komisioak, Interes edo Aseguru Programak). Hyundai MOVE produktuarekin Banco Cetelem SAuren bidez finantzatzen duten bezero partikularrentzako eskaintza. Gutxienez 13.000€ 36 hilabeteko epean eta gutxienez 36 hilabetez. Finantza entitateak aztertu eta onetsi beharrek finantzaketa. Eskaintza honek 2019/12/31ra arte balio du. Bistarututako modeloa: Hyundai i30 N Line, i30 Fastback N Line eta Tucson N Line. Informazio gehiago Hyundai kontzesionarioen sarean edo hyundai.es helbidean.



**EIBAR  
ERDI  
ERDIAN**

# 3

**2 LOGELAKO** **ETXEBIZITZA**  
euren trasteleku eta sukalde ekipatuarekin

Isasi eta Zezenbide  
kaleetako izkinan  
**Untzaga Plazatik**  
metro gutxi  
batzuetara

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

**Larragest**  
AGENCIA INMOBILIARIA

# 660 976 156



# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



**bista eder**  
clinica dental - horts klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)